

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko otsailaren 24a · 381 zenbakia



Aiarrak BASKER dokumentalean

Bi suediarrek egin zuten filma, 60.hamarkadan.
Luze jardun gara berriketan, irudietan agertzen diren aiarrekin.

3
Puntua jarrita
Maria Azkue

11
Akuilua hartuta
Lukene Lizaso

24
Erreportajea
Soziedadeak

31
Oroimenaren kutxa
Arrazubiko errota

ARRAINDEGIA

Astelehenetik larunbatera 08.30-13.30 Asteartea, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Kostera

Arraiak
zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580

cambo  KIDS • STORE

JANTZIAK • JOSTAILUAK • OSAGARRIAK

Nagusia 4 - ZARAUTZ - 943 086 849
www.cambohouse.com @cambohouse

 0-12 URTE

IZARRA ELEKTROGAILUAK

PREZIOAK JAISTEN DITUGU

PREZIOAK JAISTEN DITUGU

BEHARRAK

Eusko Gudari, 44 • Telf. 943 83 38 41 • 20816 Orko (Gipuzkoa)

 **Emekiro**
MAIZ TERAPIA

Kepa Maiz Aizpurua

600 699 626
Garmendi, 6 Behea
Zarautz
emekiroterapiak@gmail.com

KIROL MASAJEA
DRAINATZE LINFATIKOA
ERREFLEXOLOGIA
THAI MASAJEA

**DESKONTUA ADINEKO
PERTSONENTZAT**

arkaitz taberna
••••• **ur**

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Eteko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



**EKILORE
GARBIKETAK**

626417841
ekilore@outlook.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrozitatea@gmail.com

 **Zarautz**
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra

 **Harrespil**
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 - ZARAUTZ - Gipuzkoa - Tel.: 943-89 49 37 - Faxa: 943-89 49 41 - e-posta: zarautz@harrespil.net

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Erredaktore burua
Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Lore Berasaluze
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Aiora Larrañaga
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzquidun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Onetsine Arrizabalaga
Maria Azkue
Xabier Etxeberria
Iñaki Iturain
Anjel Lertxundi
Lukene Lizaso
Itziar Urretabizkaia

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Ibon Berasaluze,
iñigo Fernandez (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

PUNTUA JARRITA

MARIA AZKUE SAIZAR (DOINUA: EUSKAL HERRIKO LUR MAITE HARTAN)

Amaitu dira danbor soinuak badatoz inauteriak,

ta urtero lez horri lotuta kuadrilako afariak. Denon gogoia eta irrika dira oso nabariak, denetariko mozorroak ta festa ikaragarriak, umorea ta alaitasuna izan bitez ugariak.

Egun hauetan ohikoa da umorea, parodia, mozorrotzeko jendeak dauka sekulako ausardia; eta hara non gaur bertsolariz mozorrotuta Maria Karkara izan da aukera eder hau eskaini didan kabia, jarrai dezala orri hauetan bertoak bere hegaldia.



Hurrengoari puntua: Korrikan bezalaxe bertsotan pasako dut lekukoa

Publizitatea kontratazeko:

Karkara
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Osaba

Batzuetan, distortsionatu egiten dugu familiaren kontzeptua, nahitaez edota nahigabe, baina distortsionatu egiten dugu. Odolaren aitzakiapean errotzen gara, odolaren baitan bizi dugu familia, eta odolari erreparatzen diogu urlia sandiaren familiakoa denentz jakiteko. Baina oker gaude. Oker gaude, odolak ez duelako harremanik arautzen; oker gaude, uste baitugu odolekoa izatea dela familiakoa izatea; pentsatzen baitugu odolak margotzen duela lotura emozional-sentimentala, alegia, imanarena egiten duela odolak..

Familiaren barruan odol-loturak daude, eta baita lotura gorriak ez direnak ere. Aitaren edo amaren senidea beti izango da familiakoa, hurbilekoa; ofiziala, alegia. Baina senidearen bikotea ez da ofiziala, ez da odolekoa; postizoa da *-politiko* ere esaten zaio, halakoaren jatorria zein den jakin gabe ere-. Senide-orde horrekin dugun harremana bikaina izan daiteke, baina ez da arautua, *izebaren senarra* edo *osabaren emaztea* esatera ere ausartzen gara batzuetan.

Nire bizitza ez labur honetan halaxe pentsatu izan dut beti, pasa den aстера arte. Joan den ostegunean osaba joan zitzaigun, goiz, oso goiz. 64 urterekin, erretiroaren lehen hilabeteaz gozatzen ari zela hil zen, mendian ehizan ari zela, ustekabe beltzak harrapatuta. Arma puta horiek ondo dakiten moduan eragindako heriotzak hotz harrapatu gintuen guztiok. Eta modu berean hoztu zen gure zainetako odola, familia politiko eta ez politiko guztiarena.

Heriok azkar eraman nahi izan zuen, azkarregi, auskalo zergatik. Heriok esan dut, baina akaso naturak berak erabaki zuen osaba bertan gelditzea, ehizan ari izatearen mendeku gisa edo; edo bestela, hileta-elizkizunean apai-zak esan bezala, Jaungoikoak egin zion dei zerutik, betikotasuna gazte bizitzeko edo. Kontuak kontu, arnasik gabe utzi gaitu guztiok, baita berekin zerman zakurra bera ere.

Arestian esan dut familia distortsionatu egiten dugula batzuetan, eta hala izaten da. Baina osabaren heriotzarekin batera konturatu naiz, odol bere-

Okerrak zuzentzen

Manuel Olaizola, *Uztapide* bertsolaria, Deba eta Zestoa artean dagoen Endoia auzoko Uztapide base-rrian jaio zen, eta Oiartzungo Er-goien auzoko etxean hil. Aurreko Karkaran (31. or.) jartzen zuen Er-goien jaio zela, eta ez da horrela. Honenbestez, okerra zuzenduta.

koak ez izanagatik, familia ofizialekoa nuela osaba. Alegia, barnean utzi didan min eta penak gehiegi balio du oharkabean alde egiten uzteko. Asko maite nuen osaba, baina uste dut orain gehiago maite dudala, eta maiteko dudala. Orain dela bi aste ikusi nuen azken aldiz, eta irudi horrekin geldituko naiz, alaitasun horrekin, zimur argal horiekin, bere ondoan egotea une berezi egiten zuen gaitasunarekin.

Izeba daukat odoleko, sinesgaitza dirudien arren, orain alarguna den hori bera. Kurioski, izeba ere gehiago maite dudala uste dut; bere alboan egon nahi dut, zaindu eta maitasuna adierazi, lehen egiten ez nuen bezala. Osabak beti esaten zidan izebaren antza ikaragarria hartzen ari nintzela. Adierazten ez nuen arren, harrotasunak betetzen zuen nire baita. Ez odol bereko izateagatik, baizik eta berak, osabak eta lehengusuek beti ematen duten goxotasunagatik. Osabari hori entzuten nion bakoitzean pentsatzen nuen nik ere goxotasun horren emaria nuela aurpegiari. Hori mundiala izaten zen.

Bizitzak sekulako kirtenkadak ematen ditu, galantak, garratzak. Mendian gertatutakoak odola isuri zuen belardian; ofiziala ez den nire odol bera. Horrelaxe sentitzen dut nik, eta beti sentituko dut. Ez adiorik, osaba! ■ **Ruiz-Iras-torza sendia**

Olatz Lasagabasterren egoera salatzeke mozioa

Olatz Lasagabaster Anza, Usurbilgo preso politikoa, ama izan da Valentziako ospitale batean. Xua jaio da urtarri-laren 19an, Olatz eta Patxi gurasoak preso dituela.

Xua bere herritik 600 kilometrora munduratu da. Erditzeke momen-

tuan, ez zegoen familiartekorik ez lagunik aldamenean. Ospitaleko mediku eta erizainek zaindu zuten; poliziek, zelatatu.

Olatzen ama Mari Karmen iritsi zen ahal bezain azkar, bere alaba eta bilo-batxoarekin egotera, haiek besarkatze-
ra. Baina, pneumoniak erasanda, ez du aukerarik izan maiteekin egoteko; eta bera ere ingresatu egin behar izan dute, zaintza bereziko unitatean. Mozio hau idatzi den unean, Mari Karmenen egoerak larrira egin dezake.

Patxi, aitak, ez du aukerarik izan alaba ezagutzeko, nahiz eta espetxe-al-daketa aspaldi eskatua duen.

Pertsonontzat ez da zaila irudikatzea ama berriaren bakardadea, aitaren ezintasuna, amonaren tristura. Erraz konpreni dezakegu familiaren eta gertukoen kezka, ezintasuna eta amorrua. Izan ere, zer dela-eta jaio behar izan du Xuak bere herritik 600 kilometrora? Zergatik behartu da familia hori hain egoera zailera? Sufrimendu hori doakoa da eta bidegabea. Biolentzia hori ez da onargarria.

Horren aurrean, Usurbilgo Udaleko gobernu-taldeak honako puntuak onartzea eskatzen dio udalbatzari:

1. Usurbilgo Udalak ongi-etorria adierazi nahi dio Xua haur jaioberriari, eta zoriondu egin nahi ditu Olatz eta Patxi gurasoak, eta beren familiak. Era berean, kezka azaltzen du Mari Carmen Anzaren gaixotasunarengatik, eta lehenbailehen senda dadila opa dio.

2. Ospitalean jasotako tratu atsegina, adeitsu eta profesionalarengatik, esker ona adierazten diegu bertako mediku eta erizainei.

3. Usurbilgo Udalak irmoki salatzen du erditze hori gertatu deneko egoera eta baldintzak. Ez da onargarria preso dagoen euskal herritar bat bere herritik 600 kilometrora erditzera behartze-
ra, familiakoen eta lagunaren inolako babes eta gertutasunik gabe. Biolentzia hori mendeku goseak eragindakoa da, eta erabat tokiz kanpo dago. Hortaz, Olatz, Patxi eta Xua lehenbailehen Euskal Herriratzea eskatzen dugu. Era berean, gainontzeko euskal preso politikoak ere Euskal Herriratzea eskatzen dugu horrelako egoerarik berriz gerta ez dadin.

4. Nabarmendu nahi dugu Mari Carmen Anza ere urruntze horren biktima dela. Alaba eta biloba bisitatzea joan, eta etxetik urrunduta gaixo dago, bere ingurutik erabat apartatuta.

5. Valentzian bertan, espetxe berean, Sara Majarenas presoaren alaba, Izar, eraso bortitz eta anker baten biktima izan da. Behar-beharrezkoa da Sara eta Izar ama-alabak elkarren ondoan egon daitezen, kalean eta baldintza egokietan, eraso horrek eragindako kalte lazgarriari aurre egiteko. Horregatik eskatzen dugu ama-alabak lehenbailehen baldintzapeko askatasunean jartzeko.

6. Usurbilgo Udalak bere esku dagoena egingo du Olatz, Patxi, Xua eta beren familiei laguntza eskaintzeko, egoera zail honi ahalik eta ondoan erantzuteko. ■ **Usurbilgo EH Bildu**

Haur jaio berri bat preso?

Euskal preso politiko izan eta guraso izatearen eskubidea bermatua omen dago. Duela gutxi haurra izan duten bi euskal preso politikoren kasua da, aurreko egunetan entzun diren beste hainbat kasuren jarraipena. Etxetik 700 kilometro baino gehiagora dagoen bikoteak duela hamar hilabete izan zuen haurdunaldiaren notizia zoragarria. Kartzelako bizi baldintza gogorretan egin diote gurasoek aurre haurdunaldiak sortzen dituen egoera guztiei. Astero kristal batek banatutako komunikazioa hilean behin duten elkar bersartzeko aukerak samurtzen du. Guraso izan den bikoteak badaki zein beharrezkoa den elkarren arteko maitasuna ume bat sortzeko eta hazteko prozesuan.

Hilabeteak aurrera doazen bezala ilusio zein kezkek gora egiten dute. Kartzelako zuzendaritzak ama azaroa aldera umea izateko baldintza egokiak dituen kartzela batetara eramango zutela esan arren, zazpigarren hilabetea igarota oraindik trasladoaren berririk ez. Egoera honek guraso berrien zein inguruko senide eta lagun beldurrak handitzen ditu. Zer gertatuko litzateke umea kalkulatu eguna baino lehenago jaioko balitz horretarako prestua ez dagoen kartzela batean? Bestal-

de, preso dagoen bikoteak ezin jakin noiz izango den haurra jaio aurretik egongo diren azken aldia, astero elkarri animoak eman eta agian haurra izan aurretik elkarrekin egongo diren azken momentua izango ote den zalan-tzarekin bizi dira. Haurdun dagoen bikotearen emozioekin horrela jokatzeko oso krudela da.

Egoera salagarri honen aurrean zigortua dagoen bikoteak ez du kexatze-ko aukera handirik, euren kide askori gertatu izan zaien bezala, kexatzeak isolamendua bezalako zigorrak dakartzela. Garestiegia da protesta egitea.

Gizakia egoera gogorretan ere moldatzen denaren beste adibide bat dugu parez pare. Gorabehera hauek guztien erdian iritsi da erditzeko garaia. Ama Valentziako Picassent kartzelara eraman dute aita berrehun kilometro hegoaldera dagoen kartzelan mantenduz. Aitak ere haurra jaiotzeko momentuan gertu egoteko eskubidea ba omen du! Haurra jaio da. Lerro hauek idazteko garaian jaioberriak hamar egunetik gora ditu eta aita ez dute kartzelaz mugitu. Oraindik ez du bere alaba ezagutzen. Ez du geroztik ama ikusteko aukerarik izan.

Urtarrilaren erdi aldera beste eremu geografikoetan ohikoa dena gertatu da Mediterraneo inguruan aurretan. Azken hamarkadetan ikusi gabeko elurte batek zuriu ditu bazterrak. Errepideetan nahiz eguneroko bizitzan zailtasunak bertako biztanleentzat. Eta zer esanik ez umea izango duen bikotearen familiarentzat. Etxetik Valentziara egin beharreko bidaiak berez dituen arriskuak handitu egin dira kasu honetan. Egoera honek sortzen duen kezka, urduritasunak zein beldurrak ekidin zitezkeen horretarako borondate politikoa izango balitz.

Kartzelan umea izatearen berezko zailtasunak handitu egiten ditu disperzioak. Umea kokortzen ari den bezala kartzelaz kanpoko mundua ezagutzeko beharra du. Ezinbestekoa da pertsonaren garapen egokia izateko haurrak lau paretetatik kanpora dagoena ezagutzeko. Horretarako umea maitatuko duen familiako kide edo lagun baten Valentziarainoko bidaiaren beharra dauka bertan bizitzeko auke-

rarik ez badu behintzat. Zaintza lan honetarako sortzen dituen arrisku, gastu zein arazo guztiak ere ekidin daitezke.

Lerro hauetan labor azaldutako egoera salatu nahi dugu. Disperzioak senide zein lagunei trabak jarri eta preso en kontra ingeniarietza emozional krudela egitea errazten du. Bizi dugun egoera politikoari dagokion humanismoa da eskatzen dugun gauza bakarra. Preso daudenek ere berezkoak dituzten giza eskubideak bermatuak izan daitezela eta askea den haur jaio berria dagozkion eskubideen jabe izan dadila bizitzaren lehenengo momentutik.

■ **Olatz eta Patxiren lagunak**

Hamar urte zuri esker

Zuri esker gaur lerro hauek idatz ditzaket.

Zuri esker 10 urte daramatzat bizitzan, organoak emateko zure erabakia-gatik.

Zuri esker, egunero gogoan dut joan zinela.

Zuri esker hemen nago ni.

Gaur hamar urte dira gibela transplantatu zidatela, ezinbesteko organoa. Zure erabakia bestelakoa izan bazen zu ez zinen hemen egongo, ezta ni ere.

Organoak ematea ekintza anonimo, eskuzabal eta borondatezkoa dela azpimarratu nahi dut. Ordainetan ezer eskatu gabe, keinu batekin beste pertsona bizi ematen diezu. Pertsona horien artean nago ni.

Eskerrak eman nahi dizkiet emaila guztiei eta, egun berezi honetan, nire emaila anonimoari. ■ **Jesus Mari Alkorta Etxezarreta**

Eskertza

Orain gutxi hil zen Javier Ruiz Renedoren sendiak, bihotzez eskertzen dizuegu, modu batean edo bestean gugana gerturatu zareten guztioi, zuen sentimendua eta babesa adierazi izana, une hain mingarri hauetan.

Mila esker. ■ **Jone Miren Irastorza Ugaldebere**

Gelditu rotatiba, aldatu titularra!



Herriarteko Bertsolari Txapelketako saioa Gure Etxean. ERRIKOTXIA



Etxeluze gaztetxeko obrak. ETXELUZE



Patxi, Xua eta Olatzen aldeko prentsaurrekoa. KARKARA

A maitu da matrikulazio kanpaina. Sortzaile eta dotore joan da aurtengoa ere. Aurki, hauteskundeetan bezala hesi horiak eta egurrezko panelak jarri beharko ditugu ikastetxeek kanpaina egin dezaten. Orioko Udalak aurkitu dio, ordea, soluzioa: astelehenero garbituko dituzte kartelak jartzeko panel urdinak. Zazpi egun egingo ditu, asko jota, iragarkiak paretean. Ostiralean jartzen den kartela hiru lo egin da kenduko dute. Estu dago muga iragarpenaren eta zikinkeriaren artean.

Mendi lasterketa datorrela eta etorbide zabalak dirudite Kukuarri bueltako bideek. Ederki egin du lan, bakarren batek. Ba ote? Ez dago oterik eta sasirik bolondresei esker.

Garbiketa zerbitzua ordaintzeko aurrekontua onartu behar. Bart egin dute ezohiko plenoa, ostegunean. Asteazkenean KARKARA inprentara bidali dugunean ez dakigu aurrekontua onartu den edo ez den. Erredakzioetan luzapenean sartutako golek aldarazten omen dituzte albisteak eta portadak. www.karkara.eus atarian izango duzu EAL-Bildu-Orain-PSE partidaren emaitza. Ez dago erraza, kiniela.

Arraun jaitsiera eguraldi jatorrarekin jokatu da aurtan. Ezohikoa izan baita otsaila, Zaharren Babes Lekura hurbildu zen kankailua bezain ezohikoa. Mutilak bigarren, neskak hirugarren. Arraun Elkartean isileko lanean ari dira; herritarrak urtero saiatzen gara ilusioa berritzen. Argumentu positiboak bilatzen saiatzen gara aurtengoak itxura ona duela azaltzeko: *Salsamendiren proiektuak denbora behar du, Arraun talde guztien A eta B bontzien denborak gehituta Oriok irabazi du, titularrak eta gazteak nahastu ditu Salsamendik...* Korrika egitera joan ziren arraunlariak jaitsiera amaituta. Hori ere datu bat da moila gaineko erredakzioan. Hau guztia gutxi balitz, astebetera zortzikoak aurea hartu dio Hondarribiari distantzia luzean.

Santa eskearen hilabetean Herriarteko Bertsolari Txapelketa abiatu da. Aiarrek behin abestu dute, gaur jokatuko dute bigarren saioa Andatza auzoko Uhartemuño elkartean. Oriotarrek hanka eta erdi hurrengo fasean daukate bi saioak irabazita. Gure Etxea elkartean giro ezin hobea izan zuten bertsozaleek. Bigarren faseko saioa gaztetxean egiteko moduan izango dira. Kanpotik oso itxura ona du obrak, aldaketa ikusteko desiratzen gaude. Zein taldek estreinatuko du? Manex Barrenetxearen taldeetako batek, seguru asko.

Serio amaituko dugu. Kontu serioak Salatxo aretoan egingen dira. Duela bi ostiral txiki gelditu zen. Aldarrikapen edo eskaera leku izan da beste behin. Patxiren, Olatzen eta Xua-ren egoera salatzekeo bildu ziren oriotar mordoxka.

Kale garbiketean aldaketarik nabaritu al duzu?



“Ez naiz konturatu udalak kaleak garbitu dituela”

Ez naiz konturatu udalak kale garbiketa indartu duela. Egia esan, ez naiz fujatu ere egin.

Hala ere, txakur kakekin arazo bat badagoela uste dut, lurrean batzuk ikusten dira. Nire ustez horren ardura txakurraren jabearena da, berak jaso beharko luke kaka. Soluzio posiblea izango litzake kaka lurrean uzten duenari zigorra jartzea, baina zaila da. Izan ere, nor daki zeinena den?

Nik uste dut norberak hartu behar duela ardura, hau da, txakurra duen baikoitzak. Guk ere baditugu txakurrak eta horretan arduratsuak izan behar dugu.

Xabier Altuna



“Hobekuntza nabaria egon dela uste dut”

Bai, asko antzeman dut garbiketa. Lehen egunetan nire etxe aurrean ikusi nituen, eta geroztik kale askotan antzeman dut lurra garbitu dutela. Hobekuntza nabaria egon dela uste dut.

Irakurri dut orain kaleen garbiketa sakon bat egiten ari direla, eta gero horren mantenua egingo dutela. Espero dut hala izatea eta garbitasuna mantentzea.

Txakurren kaken arazoaz ez naiz gehiegi ohartu. Parkeetan ikusi izan ditut baina kaleetan ez gehiegi. Agian nik txakurrik ez dudalako izango da hori.

Arantxa Manterola



“Garbitu beharreko guneak biderkatu egin dira”

Gauza batzuk hobetu dira kale garbiketean, bai. Hala ere, konplikatu da. Garai batean zegoen jende kopuru bera dago lanean –nik ere kamioiarekin egin nuen lan he-men–, baina garbitu beharrekoa biderkatu egin da. Edukiontzi gehiago daude, kale berriak egin dituzte... Horregatik berrikuntza hori ondo ikusten dut. Aldaketa positiboa dela uste dut, nabaritzen da.

Jendeak, ordea, garbitasuna ez duela errespetatzen uste dut. Gauzak hobeto joango lirateke denok kontzientzia hartu eta kaleak garbi mantenduko bagenitu.

Pepe Moreno



NUTRIZIOA

- Ⓞ Azterketa eta kirol dieta personalizatua 59,65€
- Ⓞ Azterketa eta argaltze dieta 59,65€
- Ⓞ Kontrol eta jarraipena 26,80€



ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA

ERRITEGIA

Eske Goderi Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05



Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Soldadutzan ikasi nuen sukaldean”

Bixente Lasa Karrikaburu **Legatza saltsan**



Osagaiak

Olioia
Baratxuria
Piper miña
Legatza, razioko zatiak
Perrexila

Edaria

Ardo txuria

Nola egin

Olioia, bi pipermin ale eta baratxuria laminatan jarri. Baratxuria doratu aurretik sutatik atera, eta olioia hozten utzi. Legatz puska lodi samarrak egin, loditasunak zaporea indartzen baitu. Olioia hoztuta legatza zatiak jarri eta ordu erdi inguru eragin gelatina guztia ateratzeko. Arraina alde batera eduki beti. Saltsa loditzen denean ur pixka bat gehitu, nahi den loditasuna eman. Tapa jarri eta bost minututan egin. Kutxarila batekin saltsa legatz zatien gainera bota, gaineko alde gordinago egongo da eta. Perrexila gehitu. Bixentek ez dio beste osagairik botatzen.

JON AGIRRESAROBÉ

Saltsa guztietako perrexila da Bixente, sukalde gizona inor baldin bada. Orion ezagutu dugu beti, nahiz eta jaiotzaz Oiarzuarra izan. Jubilatutik aurrera zainketan murgilduta dabil, baina ia egunero etortzen da Oriora.

Oriotar bat nahi duen lekuan jaiotzen da, antza denez.

Oiartzungo Arragua auzoan jaio nintzen, autopistako irteeran, Mamut ondoan. Talaia izena zuen aitaren jaiotetxeak, hantxe jaio ginen bost seme-alabak. Gaur izen bereko industria-poligonoa dago bertan. Ama Arizkungoa da, Baztangoa, handik dator Karrikaburu.

Nolatan tokatu zinen Orion?

Oiartzundik Irungo Oiartzun kalera joan ginen bizitzera, ezkondu berritan. Ondoren Zarautzera etorri ginen. Herreran egiten nuen lan, lankide nuen Ramon Garnateo. Bera Oriora ezkondu zen. Auto berean joaten ginen lanera, eta Orion gelditzeko ohitura hartu genuen.

Zer aurkitu zenuen ijito herrian?

Hasieran Ramonen familiarekin eta lagunekin gelditzen nintzen, gero Aldapako lagun gehiago ezagutu nituen. Koa-

drila ere egin nuen herrian, jator askoa: Gurmesinde Carrascal, Eugenio Caballero, Pedro Jose Lertxundi eta konpainia. Jende jator asko dago Orion, harrera onekoak zarete.

Zenbait herritar Aldapa elkartearen sortzen ari ziren Oriora etortzen hasi zinean. Hor hasi zen guztia.

Hala da. Gogoan dut bazkide dezentek ordu asko sartu zituztela lokala prestatzen. Etxe blokea egin zutenean lokala erosi zuten, gaur egun bodega dagoen lekutik harri mordoxka atera zuten. Bazkideen artean egin zuten obra zibila eskuz; gazteok ez genuen gauza asko egin.

1981. urteko maiatzean inauguratu zen lokala. Aldapa sortzeko 70 bazkide fundatzaile behar zituzten. Bi falta ziren eta azken hamabost egunetan eman genuen izena. Bitxia da: bazkideen zerrendan izen-abizenak alfabetikoki daude jarrita, 69. eta 70. izan ezik. Ramon eta biok gara, Garnateo eta Lasa. Prestamoa eskatu zen bazkide batzuen artean. Gas-tuak estaltzeko hamabost bazkide berri sartu ziren, bazkide gazteagoak, denera 85.

Halere asko aldatu da elkarteetako martxa, baita Aldapa-



“Aldapan 70 bazkide behar ziren eta azken hamabost egunetan eman nuen izena Ramonek eta biok”

“Gustuko dut bisigu lehiaketan parte hartzea”

koa ere. Lehengo zorroztasunik ez dago gaur egun, elkartea zaintzen diktadoreak genituen lehen. Gogorrak, gazteei gogor egiten ziguten.

Geroztik hamaika otordu egin eta prestatu duzu bertan.

Nondik datorkizu sukaldarako joera?

21 urterekin soldadu joan nintzen, derrigortuta, argi geratu dadila. Kintoen arteko zozketan Madrilera tokatu zitzaidan. Marinara, teletipista deitzen zitzaien irrati estazio batera bidali ninduten, San Sebastian de los Reyesen hirian. Nire adineko hernaniar bat zegoen bertan, bistaz ezagutzen nuen. *Lasa zer egiten duk hemen? Hik esan sukaldaria haizela.* Sarjentoak sukaldara bidali ninduen. Komandanteak behin baino gehiagotan galdetu zidan aurrez non aritu nintzen sukaldetan. Lintzirin hotelean jardundakoa nintzela erantzuten nion, baina gezurra izan.

Egunero 30-40 laguni jaten ematen genien. Burgosko sukaldari bat izan nuen maisu. Hark erakutsi zidan garbanzuak, paellak eta abarrak egiten.

Sukaldean eta kirol proben antolaketan ikusi izan zaitugu.

Udaleko kamioi gainean beti. Gaur korrikalariak, bihar txirrindulariak. Halere, gustura sukaldean egoten gara. Aldapako bazkide berriei erakusten gozatu izan dut. Aldapan bertan eta plazan hamaika otordu prestatutakoak gara: herri bazkariak, arraunlariak, futbolariak, lagunak... Handienak Bisiguaren eguneko marmitakoa eta KARKARAKO urteurren bazkaria prestatu genueneko. Hori bai, beti taldean. GR121 Gipuzkoako zatia egiten ezagutu nituen Jexux Antonio Makazaga, Koldo Arruti, Pako Imaz eta koadrila.

Zuena da lasaitasuna sukaldean. Laurogei laguni jaten eman behar eta ez duzue txikiteorik galtzen.


Jende kopuruaren arabera antolatzen dugu menua, lasaiago ibiltzeko. Rolak banatuta dauzkagu: *Makatza* da nagusia, Koldo sukaldari maisua, errieta egiten duena.

Kazuelan gauza bat ongi egiten ikasten baduzu, besteak ere ateratzen dira. Sekreturik ez dago, maitasuna jarri behar zaio. Guk ez dakigu ezezkoa esaten, giro ona daukagu eta horrek lagundu egiten du.

Lehiaketa batzuk ere irabazi dituzue?

Bisigu lehiaketan parte hartzea gustuko dut. Lehen edizioan ere han ginen, duela urte mordoxka. Bigarrenean Eugenio Caballero zena eta biok irabazi genuen, sukaldari ona zen hura. Aldapa Elkartean dago saria paretean jarrita. Berriz Bisiguaren Eguna egiten hasi zirenetik bi edo hirutan irabazi dugu, iaz Makatza eta biok.

Goiko Kaleko festetan tortila patata lehiaketa jarri zuten. Igande goizetan hamaiketakoak egiten dugunez aurkeztu egin nintzen. Han ere ia beti aurrena edo bigarren. Behin Nafarroan genuen egun pasa, tortila eginda utzi nuen goizean eta gerora enteratu nintzen orduan ere irabazi genuela. Etxera ez zen saririk iritsi.



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX: 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORJO



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK.



ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 41

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAKO

Garbine Arrigi

Moda de osagarriak

Herrero plaza, 5
635 706 265

pasaportean goizez zabaltzeko!

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



argine

55eko deskontua familia ugarietarako

Eusko Gudari, 9 - Orjo
943 134 889 argine/jantziak



Zaragueta Herri Eskola Orjo

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkontza.net

Lizaso dekorazioa



Tf: 943 83 07 84

Faxa: 943 24 87 18

Eusko Gudari, 48



Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua



XS arkitektura

borja agiresarobe lopetegi
herriko-barra 6. behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

PERTSIANAK

A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

MENDIZABAL AROZTEGIA

Neurriko armairak eta egurrak

943 831 175 Altxeri bidea
645 708 491 5er-Alej etxea
mend@arozgi.net 20810 Aia-Orjo

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA



**LEIHO ISOLATZAILEAK
PVC - ALUMINIOA**

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com
www.carpinteriamaiza.com
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Itxiko erasoera mola guztiak
labeak, batri gelak, igeltser...

Ander Zinkunegui
667 740 279

Abiadura kontuak



Lukene Lizaso

Oriok badu xarma hori, kaletik babestua sentitzeko xarma hori. Baina ez beti, beldurra denok sentitu dugu noizbait.

ta etxera bidean noa lasai lasai, betiko kale kantoian hankek inertziaz abiadura azkartzen duten arte.

Orioko kaleetatik ibiltzeak beti ematen digu konfiantza puntu bat. Herrikideekin gurutzatu eta kaso egin, berdin du nor den edota zein adin tarte duen, beti agur bat, eskuarekin batzutan –merezi due-nak– eta begiradarekin beste batzutan. Kaletik agurra ukatze horrek zure agurrak zenabt balio duen pentsatzen jartzen dizu eta bai asko balio duela sisnitarazi ere. Agurra ukatzea beti arrazoi bat baitu, baliteke atzo zerbait egitea, edo lehengo astean, edo ikastola garaian harrapatutako haserre hori pasa ez zaizula eta zure dig-nidadeak –edo bereak– espaloien aldatu edo begirada kentzea ekartzen duela.

Oriok badu xarma hori, kaletik babestua sentitzeko xarma hori. Baina ez beti, eta beldurra danok sentitu dugu noizbait Orioko kaleetan –eta ez emakumeok bakarrik–. Jarrera arraroa duen herritarra edo kanpotar batekin gurutzatzean, hitz batzuk besteak baino altuago taberna batean egin eta gero kaletik gurutzatzean... jendeak babestu gaitezkeen bezelaxe beldurra ere sentiarazten baitigu. Hor dago ambibalentzia.

Azken asteetan lagunekin askotan eztabidatu dugu honen inguruan, Oriok jendez lepo egonda ere badituela puntu deseroso batzuk. Argia jarrita ere desatsegina direnak. Gogora ekarri itzazue ikastola bidean, larunbat gauean edota laguna etxean utzi eta zuri bakarrik etxerako bidean aurrera jarraitzeak sortzen zizun korapilo hori. Zihur bainago danok ditugula –kontziente edo inkontziente– sekiditen ditugun kale edo etxe atariak, lehen esan bezela pausoa azkatuarazten dizkiguten metro eterno horiek.

Askotan iluntasuna ez delako arazo, norberak dituen beldur edo bizipenak gure inkontzientean utzitako aztarnak izaten dira edukitzen ditugun erreakzioen arrazoi. Eta oso polita litzateke, egoera horiek albo batera utzi eta lasai ibiltzeko aukera (esku-bidea) berreskuratzea. Metro tarte horietan entzundako pauso edota ez tul soinu horiek sortutako takikardiak kontatzea posible balitz...



Lore Berasaluze

Urrutiko maitasuna

uzea izan da; beno, luzea egin da. Eguna joan, eguna etorri, berrogei aste ilusioari utsiz, alajaina. Berrogei aste tentu handiagoz, berrogei aste beldur handiagoz, berrogei aste gorputzari begira, berrogei aste gorputzei begira. Berrogei aste barre txikiarekin, berrogei aste urduri, berrogei aste elkarrekin arnasten eta elikatzen; janariz eta maitasunez elikatzen.

Danbor hotsetatik urrutijai da Xua, amaren bihotz doinuaren erritmoan. Elkarlan ederra egin dute biek, baina atabal bakararekin. Ezin imajinatu dezaket ze uzkurdura, ze hutsune eta ze isiltasun aitaren bihotzean, eta buruan. Askatasunaz eta eskubideez gain, alaba ere falta. Eta alferrik da ura joan eta gero presa egitea. Amaren kontaktuzunak entzunda, Xuaren lehen egunak imajinatzearekin konformatu behar izan du.

Burua hotz, gogorra da Patxi, gogorra izan behar nahitaez. Kilometroetako distantziara, bihotzeko zatitxo bat goxatu diezaiekegu, hirurei; orbanak igurtzi eta leundu. Urrutitik zaindu eta maitatu.

Lau paretan artean ere bizitza berri bati egingo diote aurre, ausardiaz. Burua ezin baita itxitura batean preso eduki; ilusioari ezin baitzaio itxaroteko eskatu; maitasuna morfina baino botika indartsuagoa baita; erresuminak alde aurretik galdua baitu goxotasunarekin hasitako borroka.

Ongi etorri Xua! Zorionak Olatz eta Patxi! Muxu erraldoi bana!



azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



GARMENDIA
HOREZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

Joana Murgiondo
Asegurua-agenzia

ASEGURUAK

C C I
CARASA, CIVISTI, LACORT E CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Endala Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)



Azkue



Tf: 943 130 438



Azkue

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4
20800 Zarauz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascarraja@euskalnet.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK INKERTZEN DITUGU
- SARRAILA - ISLINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA



Basker: Aiako irudi ederrak, bi suediarrek egindako filmean.

Isaac eta Silvestre Arruti anaiekin -Aia, 1938 eta 1948-, Valentin Aldalurrekin -Aia, 1954- eta M.Rosario Manterolarekin -Aia, 1950- bildu gara Aiako Kultur Etxean, **dokumentala elkarrekin ikusi** eta garai zaharretako kontuak gogora ekartzeko.



TESTUA: I. GAITON

ARGAZKIAK: KARKARA ETA BASKER

Argibel Euba etnologoak ustekabeen topatu zituena *Basker* eta *Bondei i Baskerland* dokumentalak. Irudien balioaz jabetuta, EHUko Mikel Laboa katedraren bidez, ikerketa eta identifikazio lan sakonak egiten jardun zuen. Emaizta iaz argitaratu zen, eta DVD-liburu formatuan eskura daiteke.

Dokumentaleko irudiak Daniel Grenholm eta Lennart Olsson suediarrek grabatu zituzten, bertako SVT telebistarako, 1963.urtean. Silvestrek gogoan du egun hartan jendea *argazkiak eta holakoak egiten* jardun zela, baina zehazki, lauretako inor ez da akordatzen bi atzerritarren presentziarekin. Isaac idiak tiratzen duen harriari bultzaka ikusten da bideoan bere anaiekin batera, eta Valentin publikoan, bost urte inguruko

mutil koskorra zela. Silvestre ez da ageri, baina han zen segurur, *halako egunak oso bereziak baitziren guretzat*. M. Rosariok, ordea, ez zuen bertaratzeko aukerarik izan. *Gu, garai hartan, ez tabernara, ez apustueta...* ezer ere ez! Horrelako kontuak gizonentzat ziren, batik bat. Emakumeak erromerietara joaten ziren, joatekotan. *Eta horra, solterak bakarrik e, ezkondutakoak, etxean!* Barre egin dute laurak.

Hasi orduko, traza polita hartu du hizketaldiak. Hizlari finak dira denak, eta zorrotz bezain gozo ekartzen dituzte gogora kontu zaharrak. Isaac-en arabera, apustu hartako idia nahikoa txikia zen, 800 kilo ingurukoa, eta hori kontuan hartuz, nahikoa erraz mugitu zuten harria. *2300 kilo izango zituena, eta dezente heltzen zion lurrari...* Dema bezperan, plaza garbitzen zuten kuadrillek, lehian tranparik egon ez zedin.



“Gu, garai hartan, ez tabernara, ez apustueta... ezer ere ez!”

M. ROSARIO

“Harriak 2.300 kilo inguru izango zituen, eta dezente heltzen zion lurrari.”

ISAAC

Valentinen aita zenak, herriko aguazila orduan, gaupasa dezente egiten zituen apustu lekua zaintzen. *Gu aldamean jolasean genbiltzala, baloia hara bota nahigabe, eta errieta galantak jasotzen genituen. Plaza sokarekin ixten zuten, inor sar ez zedin. Lurra egoera onean egoteak garrantzia handia zeukan.*

Festa egunetarako arropa berezia janzten zuten galdetuta, ez dute baiezko argirik eman. *Zer edo zer aldatu bai, baina gutxi. Gainera, guretzat kalterako izaten zen kuriosoago janztearena, gauerako zerri egiten baikinen... Etxekoek belarriak berotzen zizkieten iluntzean. Orduan, hoztu ere ez gu, mutil koxkorak izan... Jo batera eta jo bestera, hura bai sasoi!*

10-12 urte bete arte galtza motzekin ibiliak dira hirurak, eta M. Rosario, gonarekin. Gogoan ditu *pantorrillen* atzealdeko urratuak. *Zauriak ostra egiten zitzaizkidan, itxura itsusia zuten benetan. Festarako pixka bat txukundu nahi, eta espartzuarekin igurzten nituen... odola atera, garbitu eta aurrera.*

San Anton eta San Asentzio egunek, udako jaiek baino garrantzia handiagoa zuten orduan. Isaacek eta Silvestrek gogoan dute Oriotik nola igotzen zen *Zakilla* euren baserriraino, buruan bisiguz beteriko otarra zuela. *Bazekien gurean San Antonetan gustuko genuela, eta bost edo sei pieza erosten genizkion bezperan. Oroitzen dut nola egoten ziren bisiguak eskegita, txorizoak zintzilikatze leku berean. Begitik sartu gantxoa eta hantxe, hurrengo egunean jateko listo. Getariatik ere igotzen zen emakume bat Aiako kaskora, etxez etxe arrainasaltzera.*

Futboleant, Guardia Zibila eta apaizarekin

Dokumentalera itzuliz, ahari, idi eta aiarren artean Guardia Zibila ere ageri da. *Orokorrean harreman ona genuen berekin, tartean aluren bat ere tokatzen zen arren... Elkarrekin ere aritzen ziren jolasean. Jesus, motel, futboleant jokatzerantz apaiza ere juntatzen zitzaigun aldika. Bazen Treviño delako Guardia Zibil bat, gero ETA-k akabatu zuena. Hura dezente jarduten zen gurekin, tarteka ostiko ederrak jasotzen zituen arren... Berem seme-alabekin ere nahikoa harreman ona zuten eskolan, beti erreparo pixkarekin tratatzen zituzten arren.*

Eskola garaiko kontuez galdetuta, leihotik bota nahi izan zuten maisuaren istorioak bete-betean harrapatu gaitu. Silvestreri begiak piztu zaizkio kontaktetan. Atzo gertatua dirudi anekdotak. *Maisu bat bagenuen, Don Fernando. Zeharo alua. Gure artean hasi ginen hizketan, nolabait, merezitakoa eman behar geniola hari... Ikaskideon artean plana egin genuen, maisua bere onetik atera eta sutan jartzeko. Horrela, haserretu eta kristorenak eta bi botako zizkigula aprobetxatuz, bageneukan aitzakia zarpatik heldu eta lurretik bizpahiru metrora zegoen leihotik behera botatzeko... Ordea, azeria bera, buruan okerren bat genuela antzeman eta ez zen aulkitik mugitu ere egin...*

Hamabi urterekin utzi zuen eskola Silvestrek; gauzak nola diren, leihotik salto eginda. *Irakasleak sei lagun zigortu gintuen batean, ospa egin genuen denok batera. Ordurako, ikaste-*



ko gogoa ere tamainan, eta ez nintzen gehiago itzuli. Ordu gutxiago eman zituen eskolan M. Rosariok, 9 urterekin hasi eta 12 egin bitartean. Erditan ezin izaten zuen joan. Doktrina izan ezik, dena gaztelera irakasten ziguten. Euskaraz egiteak, pezeta bateko multa zekarren atzetik!

Gaseosa botella eta karameluak

Eskola kontuetatik buelta hartu, eta ospakizunetara itzuli gara berriz, tertulian esaera zahar xeble bat agertu denean: *Eskerrak asentziyoi, bestela Aya kakak jan...* Nonbait, festa egun hura herriko etxeak margotu, konpondu eta txukuntzeko baliatzen zela dio Valentinek. *Herriatik kanpora joandako lagun eta ahaideak Aiara itzultzen ziren ospakizunaren aitzakian, eta herriko bazterrak atontzeko aprobetxatzen genuen. Bazkaldu eta gero, erromeria. Aurretik ere bai, meza ondoren, hamaiketako garaian. Dokumentalean agertzen diren trikitalariek, Egañazpik eta Sakabik, pieza asko zekizkiten. Haiek bai artistak!*

Ume garaian, patrikak urratu xamarrak izaten zituzten, eta lauzpabost lagun artean erosten zuten *gaseosa* botila festa egunetan. *Gauza ederra hura. Eta karamelu batzuk ere bai.* Dantza, kantu eta algarak bukatuta, goiz etxeratzen ziren iluntzean, *utziz gero, neskaren bati etxera lagunduz*, dio Silvestrek. Isaaci irribarre bihurria atera zaio, orduan ere ligatze kontutan batzuk besteak baino *destakatuagoak* zirela gogoratuz. Belarrondokoak ere izaten omen ziren, tarteka.

Urteko egun seinalatuak, era-erako aukerak ziren neska-mutilen artean harremantzeko, egunerokoan, bakoitza bere zereginetan sartuta, elkar topatzeko aukera gutxi izaten baitzuten. Hor dute jatorria, nonbait, auzo ezkontzek; baserri batetik besterako gertutasunak, denbora gehiago eskaintzen zien elkarrekin egoteko. *Lanetik atera eta ttak, bikotea ingu-*

“Treviño, Guardia Zibila bera, dezente aritzen zen futboleko gurekin, tarteka ostiko ederrak hartuta joaten zen arren...”

VALENTIN

“Orduan, inbidia gutxi genion elkarri. Erronkak izaten ziren, baina edozeini laguntzeko prest egoten ginen beti.”

SILVESTRE



ruko baserriren batean bizi bazen, hari bisita txikia egiteko aukera izaten zen horrela.

Ditxosozko joan beharra

Orokorrean, pertsonen arteko harremanak sanoagoak ote ziren galdetu diegu laurei, berriketako azken hari mutur gisa. Bat-batean, leihoko zirrikituren batetik malenkonia korronte txiki bat sartu bailitzan, aiarren aurpegiak bete egin dira. *Orduan, gaurko aldean, inbidia gutxi genion elkarri. Apustu eta erronkak izaten ziren, baina edozeini laguntzeko prest egoten ginen beti.* Gaur egungo presak, eta joan beharrak. *Lasai egoten ginen elkarri kontuak esanez. Orain korrika bizi gara, mundu osoak du norabait alde egiteko premia!*

Valentinek gogoan ditu mahaian, bazkari edo afaritan, izaten zituzten tertuliak. Isaac-ek ere bai, beren kasuan, amarekin gehiago. *Aita goiz oheratzen zen. Amak gustuko zuen gurekin berriketan jardutea. Altuegi hitz egiten bagenuen, edo builaren bat bazen, aitak berehala jotzen zuen hankarekin logelako lurra, guk behetik entzun genezan.*

Ohe berean, hiru edo lau umek egiten zuten lo batera. Elkarrekin zertara jolasten zuten galdetuta, *borroka txikiak eta halakoak egitera bai...* baina normalean, jostaketarako denbora gutxi izaten zuteladiote. Ez zen lanik falta baserrietan. *Hurrengo egunean amak azokara joateko asmoa bazuen, bertan saltzeko jenero onenak sailkatzen ematen genuen bezpera: intxaurrik onenak aukeratu, babarrunak ere bai... Beti genuen zereginen bat.*

Garai zaharraketa kontu berriak. Hobera aldatu diren gauzak, eta *gazteei behar bezala irakatsi ez zaizkienak.* Konturazterako ahitu zaigu arratsalde. Berriketa amaitzeko garaia da, Isaac frontoi izkinan geratu baita zortzietan, sagardotegira joateko. *Pelotan apustua galduta gaudek eta...*

IRUDIEN KALITATE BIKAINA DEIGARRI

Argibel Eubak, dokumentaleko irudiek eta soinua duten trataera bikaina azpimarratzen du liburuan. Filmaketak Lennart Olson-ek egin zituen, ArriFlex kamera batekin, 16mm-ko pelikula txuri-beltza erabiliz. Daniel Grenholm-ek ere lan oso fina egin zuen audioarekin, soinua Kudelski markako magnetofonoarekin kanal bakarrean hartuz. Kalitate goreneko erreminta hauez gain, etxe barneko grabaketarako bi foku ere erabili zituzten.

Irudien muntaia Olson arduratu zen, eta dotore nahastu zituen jende, leku eta gertakizun ezberdinak, gaiaren arabera. Nabaria da suediarrek Euskal Herriko kultura modu anitz eta koherentean erakusteko egingdako ahalegina. Gidoi nagusia Grenholm-ek idatzi zuen, eta dokumentalean zehar bere ahotsa ere entzuten da, filmeko hainbat gertaeren inguruko azalpenak ematen.

Eubaren hitzetan, suediarrek gogotik egin zuten lan Aiako filmaketetan, apustu eguneko protagonistak grabatzeaz gain, inguruko ikusle eta giroa dokumentatzen ere arreta handia jarri baitzuten. Etnologoaren arabera, horri esker, izugarria da irudiok duten balio antropologikoa.

Egurra Pinotxori



Xabier Etxeberria

Beti pentsatu izan dut gezurrak merezi baino fama txarragoa duela. Eta ez naiz sartuko egia buruzko eztabaida filosofikoetan.

Beti pentsatu izan dut gezurrak merezi baino fama txarragoa duela. Eta ez naiz sartuko egia buruzko eztabaida filosofikoetan: - Katarroa izatearen antzekoa da egia? Alegia, *erdi gaixo nago = arrazoi pixkat baduzu horretan.*

- Edo haurdun egotea bezala da? Haurdun zaude ala ez, baina ezin zara egon *pixkat haurdun.*

Nahiz eta, egia bat eta bakarra dela –eta, jakina, berak direla haren jabe– uste duten horiek inbidia latza sortu izan didaten beti. Pentsa, nongoa naizen galdetzen didatenean ere nola erantzun asmatzeko zalantzan egoten naiz ni...

Baina, edozein modutan, espainolez *mentira piadosa* deitzen zaien horiei buruz ari nintzen ni. **Gezuhurra** deitu genizaieke euskaraz, *gezur + zuhurra* batu eta hitz berria asmatuz.

Esate baterako, begirada neska/mutil eder baten ipurdira irristatu eta zure bikoteak *Zertaz ari zara pentsatzen?* galdetzen dizunean, tontoen kanpeoia izan behar da poker aurpegia ipini eta *Zutaz maitea, zutaz ez erantzuteko.* Izan ere, egiak libre egiten gaituela dio Bibliak, baina lanak libre egin-go zituela agindu zieten naziek juduei ere, eta badakizue

hura nola bukatu zen.

Bikote harremanetan, hain zuzen, elkarri egia oso-osea kontatzea pornografikoa dela iruditzen zait. Ez da sana, %100 purua den ura edatea osasunerako ona ez den bezalaxe. Makinek ere koipea, zikina, behar dute engranajeetan hobeto funtzionatzeko.

Eta ez norberaren mesedetan bakarrik. Ezkontza batera joan baino ordubete lehenago, bikotea ileapaindegitik erremediorik gabe desastre bat eginda itzultzen denean, Errusiako presidentearen familiakoa izan behar da egia esateko. Askoz hobeto: *Primeran zaude maitea, goazen ondo pasatzerara!*

Gero, gure bizitza eramangarriagoa egiten duten beste gezur eder horiek ere badaude, lehen **pantasiya** esaten zitzaiznak. Mitoak, kondairak, ipuinak... Idazlearen **ofikzioa** horixe omen da: gezurren bidez egia kontatzea.


Gianni Rodarik, adibidez, badu ipuin eder bat. Bertan Pinotxok, gezur zoro pila asmatzen ditu nahita: sudurra hazten zaionean, moztu eta egurrezko aulkiak eginez ateratzen du bizimodua.

Ederra, ezta? Gustatu? Esaidazu egia...

Santa eskean, kalez-kale

Goitik behera zetorren euriak ez zituen ikastolako ikasle eta irakasleak kikildu. Ibilbide osoa egin ez zuten arren, makilak ongi astindu eta eztarriak ederki berotu zituzten Santa Ageda bezperan. Ikastolako pergola doinuz bete zuten lehenbizi eta gero, plaza-aren aterpean, herri osoari kantatu zioten *eztarriz sano* dabiltzala.





Igor Iturain Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria

“Enpresei laguntzeko gaude”

Udal Elkarteak enpresentzako zerbitzuak eskaintzen ditu. Zer dela eta?

Gure helburua eskualdearen garapena bultzatzea da eta, garapen horretan enpresek zeresan handia dute, izan ere, enpresek sortzen dute enplegua, neurri handi batean. Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako enpresa gehienak, 10etik 9, txikiak dira. 10 langile baino gutxiago dituzte. Enpresa txikientzat zaila da bete behar dituzten betekizun guztietara egokitzea (lege aldaketak, merkatuaren eskaerak, produktuaketa lan prozesuak, berri beharra, merkatu berriak bilatzea...), behar adina baliabide ez dutelako. Horixe da gure eginkizuna, hor enpresei laguntza ematea eta enpresa berria sortu nahi duenari laguntza ematea.

Nolako zerbitzuak dira?

Era askotako laguntza ematen dugu: informazioa diru-laguntzei buruz, ikastaroak gai zehatzei buruz. Adibidez, oraintxe esku artean ditugu datuak babesteko lege aldaketei buruzko ikas-

taroa, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ikastaroa edo ISO9001:2015 Arau berrieta egokitze ikastaroa. Gero, programa zehatzak bideratzen ditugu, enpresen lehiakortasuna hobetzeko: batzuk, giza baliabideen kudeaketa hobetzeko eta pertsona oinarritzat hartzen duten ereduak ezartzeko, beste batzuk antolakuntza edo ekoizpen prozesuak hobetzeko, beste batzuk bailarako enpresen lankidetzat bultzatzeko... Programa eta zerbitzu horiek doakoak dira bailarako enpresentzat, hainbat erakundek (Foru Aldundiak, Europak...) edo udalek finantzatzen ditzutelako.

Nolako oztopoak aurkitzen dituzue?

Enpresek gure programetan parte hartzea kosta egiten zaigu askotan. Uleritzen dugu, eguneroko martxakez dielako tarterik uzten itxura batean horren premiazkoak ez diruditen gaiak lantzeko. Baina, garbi dago etengabe hobetzea eta aldaketei aurrea hartzea dela bide bakarra etorkizun hurbilean lehiakortasunari eusteko. Eta horretara-

rako dira, hain zuzen ere, gure zerbitzuak. Enpresei esan nahi diet edozein kezka, galdera edo gabezia baldin badute jotzeko guregana. Enpresei laguntzeko gaude. Gainera, asko dugu enpresengandik ikasteko, merkatuaren «pultsua» beraiek dute eta.

2017rako zein asmo dituzue?

Ohiko zerbitzuekin jarraituko dugu eta beste hainbat erakunderekin lankidetzan (Foru Aldundia, garapen agentziak...) hainbat programa burutuko ditugu. Berrikuntzen artean bi aipatuko nituzke: alde batetik, enplegu eta enpresak sortzeko eta inbertsioetarako diru-laguntza programa bat jarriko dugu martxan, 2016an Zarauzko Udalarekin bideratu dugunaren antzekoa, baina oraingoan bailarako bost herrietako enpresa eta ekintzaileentzat. Beste alde batetik, 2017an eskualdeko mahai estrategikoa eratu nahi dugu, eskualdeko enpresa, hezkuntza zentro eta erakunde publikoen lankidetzat publikopribatua indartzeko.

Enpresentzako zerbitzuak

Informazioa, Aholkularitza, Prestakuntza, Diru-laguntzak, Lehiakortasuna, Lankidetzat

ENPRESENTZAKO ZERBITZU ETA PROGRAMAK

Zerbitzu integrala, enpresa martxan jartzeko aholkularitza eta laguntzatik hasita

Une honetan beheko programak ditugu martzan, oinarrizko zerbitzuez gain.
Jarri gurekin harremanetan, argibideak jasotzeko eta izena emateko.


**HOBETU PREBENTZIOA
ZURE ENPRESAN**

Lan arriskuen prebentzioa hobetzeko programa:

- Prestakuntza
- Aholkularitza zehatza

**GEOLOKALIZATU
ZURE ENPRESA**

Geolokalizatzeko laguntza:

- Enpresa google mapsen egoki geolokalizatzeko

**BATERATZEN:
UZTARTU PERTSONAK
ETA ENPRESA**

Pertsonak enpresaren estrategiarekin bateratzeko programa:

- Enpresaren helburua zehaztu
- Diagnostikoa: enpresaren egoera
- Ekintza plana lantzeko laguntza

**MUGIKORTASUN
PLANA**

Zumaiako Joxe Mari Korta, Guascor eta XEY industrialdeetako mugikortasun plana:

- Planaren garapena
- Mugikortasun foroaren eraketa

**INDUSTRIA
SORTZAILEAK:
LANKIDETZA**

Kultura eta industria sortzaileetako eskualdeko enpresak sustatzeko proiektua:

- Sektorearen azterketa
- Lankidetzarako aukerak

**SICTED PROGRAMA;
KALITATEA TURISMO
ARLOKO ENPRESETAN**

Pertsonak enpresaren estrategiarekin bateratzeko programa:

- Enpresaren helburua zehaztu
- Diagnostikoa: enpresaren egoera
- Ekintza plana lantzeko laguntza

«Arin iritsi nahi baduzu zoaz bakarrik;
urrun iritsi nahi baduzu, goazen elkarrekin»

Bailara eraikiz

Urola Kostako Udal Elkarte

Urdaneta bidea e, 20800 Zarautz, Tel. 943 89 08 08

enpresa@urolakosta.eus

www.urolakosta.eus



la 400 korrikalari Kros Txikian

Ipar haizeak eta euri zaparradek utzitako tartetan korrika saio ederrak egin zituzten ikasleek Zaraguetak antolatutako Kros Txikian. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek lasterraldi bizi-biziak egin zituzten hondartza inguruko kaleetan. Txikienek gurasoei eskutik helduta egin zituzten lasterketako metroak, irribarre, amasestu eta negar zotin bakanen baten artean.



Fusioaren garaia



Itziar Urretabizkaia

Iehengo egunean antzerki obra *ezberdin* bat ikustera joan nintzen. Teknologia berriak eta antzerkia nahasten ziren bertan: hiru mutil zeuden eskenatokiaren inguruan eta kamera txiki batzuen bitartez bertan jarritako figura ezberdinak grabatzen zituzten zuzenean atzekaldean zegoen pantaila batean proiektatzeko. Aktore lanak ere egiten zituen haietako batek proiektzioarekin nahastuta. Fusioa: antzerkia eta momentuan grabatutako irudiak bat eginda. Sentsazio arraroarekin ateratzen eta ikusi berri nuen sor-kuntza horri digestioa egiteko kaña bat hartzea pentsatu nuen antzoki ondoan zegoen merkatuan. Eraldatzen ari den merkatu bat zen: betiko harategi, arraindegi eta fruterien artean janari eta edarien pos-

“Kosk egin nion eta hasieran arraroa iruditu zitzaidan mokadua zapore eztanda bihurtu zen.”

tuak zeuden. Artisanu zerbeza jartzen zuen bat ikusi nuen eta hara joan nintzen zuzenean. *Hemen ere fusio ederra daukate* pentsatzen nuen bitartean zerbezarekin ateratako tapari begira geratu nintzen: antxoa bat, guakamole eta maruka arraultzarekin *Hau ere ba al deu!* Kosk egin nion eta hasieran arraroa iruditu zitzaidan mokaua zapore eztanda bihurtu zen. Fusioa= bat egitea. Fusioaren garaian gaude eta uste dut honek leku oso interesgarrietara eramango gaituela arlo guztietan. Zer deritzozu One?



Onetsine Arrizabalaga

Euztiz ados nago zurekin Itziar. Elementuak elkarrekin fusionatzeak batuketa politik dakartza. Izan sukaldea edo kultura, emaitza potenteak lor daitezke.

Izaki bizidunok ere fusioari esker egin dugu aurrera! Gure zelulek dituzten organulo ezberdinak zelula efizienteagoak sortzeko fusionatu ez balira, ez genituzke zelula anitzeko organismoak izango. Eta eboluzioak aurrera egin ahala, fusioak gurekin egin du aurrera. Pertsonak, ekintzak edo ikuskizunak multzo berezitetan sartu eta bananduta eutsi diegu urte luzez. Elkarrekin bateratzearen experimentuek emaitza ederrak eta interesgarriak dakartzate, eta kultura aldetik orain ari gara emaitza horiek ikusi eta gureganatzen.

“Pertsonak, ekintzak edo ikuskizunak multzo berezitetan sartu eta bananduta eutsi diegu urte luzez.”

Nik dantza ikuskizunak izan ditut gertuago antzerki baino. Folklorearen gustatu arren, duela 20 bat urte hasi ziren hainbat talde talde beren dantza saioak beste doinu eta mugimenduekin uztartzen, ikustera ohituta ez geunden espektakuluak emaitza liluragarri! Agian dantza edo musika erritmo ezberdinak uztartzea errazago *irentsi* dugu, baina disziplina ezberdinetan fusiotik indartuta aterako garela dudarik ez dut!



Soziedadeak, aldaketa garaian?

Elkarteetako bazkide egiteko, asko itxaron behar izaten zen lehen; kasu batzuetan, urteak ere bai. San Juan Elizpek gutuna argitaratu zuen aurreko Karkaran, zerrendan sartzeko lekua zutela adieraziz. Gizartea bezala, soziedadeak ere aldatzen ari ote dira?



TESTUA: I. GAITON

ARGAZKIAK: KARKARA

Irungo elkarte batean, lasai zeuden afaritan kuadrilla ezberdinak. Kafeak ateratzearekin batera, bi lagunek puru pare bat piztu zituzten. Alboko mahaian hiru bikote zeuden, beren hurrekin, lasai, postrea bukatzen. Hauetako batek, erretzaileari kargu hartu zion, ume txikiak zeudela eta, mesedez, ez erretzeko eskatuz. Honek, ezetz, gaua jada ondo sartuta zegoela, eta ez zuela kafea pururik gabe hartuko. Hara, liskar txikia.

Egun gutxira, erretzailea kexatu egin zen batzordean, afa-lostean izandako aferaren harira. Erabakia: iluntzeko bederatzietatik aurrera, haurren sarrera galarazi zuten, gehien-goak hala nahita. *Soziedadea hori duk!*, esan du berehala elkarritzketatu batek. Arazo batekin joan, eskua altxa, eta bazkide

gehienek agintzen dutena betetzea. Kontsentsua. Erraza dirudi horrela esanda. Erraz ere, esan egiten da, urtean 12.000 sagardo botila husten zituztela San Juan Elizpen, hamarkadak atzera. Muskulu Harriakoen arabera, kirol portuko elkarte berrian, 2.500 inguru.

Eztarritik pasatako sagardo litro kopuruak, modu esajeratuan, lagun dezake elkartearen panoramak izandako aldaketaren ideia txiki bat egiten. *Bazkideen itxaron zerrendatan, lehengo aldean, jende gutxi dago orain. Ni sartu nintzenean, 90.hamarkadan, tokatzen zen urteren bat edo beste zain egoitea.* Aldapan, irtetera zihoan bazkideak, plaza eskaintza onena egiten zionari saltzen zion. Diru gehien jartzen zuena, barrura. Gero, elkarteak salerosketa horretan etekina atera be-



har zuela adostu zen, eta irtetera zihoanak soziedadeari saltzen zion plaza, honek zerrendako lehenari eskaintzeko. Azken urtetan, elkarteren batek jaitsi ere egin du sarrera kuota, jendea erakartzeko. Gure Etxea-ren kasuan, zerrendan sartzeko zain 6 edo 7 lagun edukitzetik inor ez izatera pasa dira, hamar urteren bueltan.

Ordea, bada salbuespenik ere. Muskulu Harrian zerrenda luzea dute. *Instalazio berriak ditugu, eta lokalaren kokapena bera ere oso erakargarria da. Horregatik izango da, ziurrenik.*

Erabilera aldaketak

Bazkide kopuru eta profila baino, elkarteei ematen zaien erabilera aldatu da. Hori diote gehienek. *Lehen, ez zen harritzekoa kuadrilla jakin bat, larunbatero, mahai berean afaritan ikustea. Igandetan ere bai, hamaiketako egiten. Orain jendea ibiltzen da, baina modu irregularragoan.*

Soziedadeetan gertatzen ari dena, gizartean ematen ari diren ohitura aldaketen isla dela diote ia denek. *Aisiaren kontzeptua asko aldatu da, azken bi hamarkadetan. Lehen jendeak joera handiagoa zuen asteburu eta jaiegunetan herrian geratzeko. Horrela, soziedadera joatearen plana oso eskura geratzen zen. Orain, gazteak, irrikatan egoten dira autoa edo furgoneta hartu eta hanka egiteko.*

Orion pizzeria dugu gaur egun, plater konbinatu edo bokatak jateko eskaintza zabala, eta etxeraino motoz janaria gerturatzen duen negozioa ere bai. *Orain dela hamarkada ba-*

“Lehen, ohikoa zen kuadrilla bat, larunbatero, mahai berean afaritan ikustea.”

“Soziedadeak sortu zituzten herritarrek, lotura emozional handia dute lokalekin, militantzia puntua sentitzen dute.”

ZENBAKIA

12.000

Sagardo botila. Garai batean, 12.000 sagardo botila husten zituzten urtean San Juan Elizpen. Gaur egun, kopurua 2.500-4.000 botila ingurura jaitsi da elkartean.



tzuk, kalean zerbait jaten geratzearena, ez zen hain ohikoa. Horren ordez, errazago jotzen zen soziedadera lagunekin, laneko jendearekin, familiakoekin...

Krisi ekonomikoak dezente urratu ditu patrikak, batik bat gazteen kasuan, eta soziedadeetan jatea, betidanik atera da moduz. Diru eskasia horrek, nolatan ez du lagundu, bada, jendea elkarteetara gerturatzen? *Lana egin behar delako!* erantzun digute zorrotz. *Gehiago edo gutxiago, beti du lan pixka bat mokadurik sinpleena ere prestatzeak. Eraman behar diren osagaiak adostu, prestatu, jan ondoren mahaia txukundu, kontuak egin...*

Denbora falta?

Azkar bizi gara gaur egun. Geroz eta mezu laburragoak bidaltzen dizkiogu elkarri, interneterako konexioa moteltzeak eguna mikazten digu, eta autobusaren zain egondako 5 minutuak galdutako denbora dira. Soziedadeen esentziak, bete-betean egiten du talka daramagun bizi erritmo zoroarekin. *Hori da ba ona. Soziedadera lasai joan behar da, patxadaz. Sukaldean, jardun bitartean, zerbeza batzuk ireki eta lagunekin hizketan egotera. Jakiak prestatzen, ohikoa da koadrilla edo jenerazio ezberdinetako jendea elkarri laguntzen ikustea. Jan ere halaxe egiten da, lasai, kontuak esanez. Eta zer esanik ez: bazkal edo afalondoko berriketa, kantu eta algaratarako, ez da leku hoberik.*

Elkarteak sortu zituzten herritarrak gora doaz adinean, eta ondorengo jenerazioek ez dituzte hain bere sentitzen lokalak. *Argi dago, militantzia puntu bat galdu da. Soziedadeak sortu zituzten herritarrek, orain 70 edo 80 urtetik gorakoak asko, lotura emozional handia dute berekin. Guri, giltza pasa digute eta kito, dena eginda jaso dugu. Bazkide izateak ez digu sentimendu berezirik sortzen.*

Elkarte bakoitza, mundu bat

Denek azpimarratzen dute, soziedade bakoitzak ekosistema propioa duenaren ideia. Guztiek dituzte berezitasunak, baina baita gauza komunak ere: Orion, elkarte guztietan dute emakumeek bazkide izateko eskubidea, Aldapan izan ezik. *Bai, horretan nahikoa zurrinak izan gara, triste da. Espero dut etorkizun laburrean konpontzea, esan digu bertako elkarriketatuak.*

Falten kontua ere, elkarte denetan errepikatzen da. *Hori soziedadeen anatomiaren zati da. Beti egongo dira hor. Buruko mina baino, malaletxea sortzen dute! Batzuetan izan daiteke deskuidua, sukaldatzeko erabili den atun potea edo olibak ez apuntatzea. Baina sei ginebra botila... Diruagatik baino, izorratzeko egiten omen dira horrelakoak. Ozpinez betetako likore botilak ere topatu izan ditugu...*

Jendea, ez dakigu. Saltsarik behintzat, ez zaie berehalakotan faltako.

Alejandro Tapia edo pintore ondratuaren leihoak

dozein alorretako euskal ahalegin artistikoak gutxietsi nahi direnean, hor agertzen zaigu memoriaren ganbaratik, klixek gisa eta baita ezpata bezala ere, Marcelino Menéndez Pelayok asmatutako “la honrada poesía vascongada” esaldi ezagun hura Samaniegoren eta Truebarenean poesia gutxiesteko: Ayala kan-tzileraren poesia goratu nahi zuen. Gaztelaniazko poesiaz soilik ari zen: ez euskarazko poesiak ez euskarak zuten tokirik haren kasketan eta munduan.

Klixek ondo finkatu ditu erroak: euskaldunok pinturan eta musikan, poesian edo dantzaren egiten dugunak oso bakanetan gailentzen du, nonbait, ondratu maila. Gure artea apala dela, alegia. Gutxieneko galga lortzen duena akaso, baina anbizioz gabea. Txokotik zabalera egiten ez dakien arte bat. Menéndez Pelayoren garaian gaur baino sarriago erabiltzen ziren bi hitz kontrajarri baliatuz, kultura probintzianoa da gurea eta ez kosmopolita. Metropolia zen garai hartan arnasa sakon hartuta esaten beste hitz bat, eta metropoliaren aireak usaindu behar dira, nonbait, Santandereko kritikari eta historialari ospetsuaren bedeinkapena lortzeko.



Anjel Lertxundi

Ondratu hitzaren erabilera gaitzesleaz aritu naiz orain arte. Baina ondratu adjektiboak ba al du ba tokirik arteaz jarduterakoan? Hitzak karga morala du, zilegi al da ondradutasunaz mintzatzea arteaz ari garenean? Ondradutasunaz zer ulertzen den. Kulturaren alorrean ondratu izatea da leiala izatea burutu nahi den lanarekin, ondratu izatea da koherentzia gordetzea artistaren eta obraren arteko lehian. Ondradu izatea da, halaber, kanpoko aireak norberaren helburu estetikoetan integratzea, eta bada baita ere tentuz ibiltzea kanpoko aireekin baldin moda hutsa badira, baldin kaltegarriak bazaizkio artistaren jardun pertsonalari. Beraz, ondradu izatea kategoriala moral bat da, egia, baina esaten ez dugu ba etika eta estetika ez direla arte izeneko txanpon beraren aurkia eta ifrentzua besterik?

Orain arteko ideien eta Alejandro Tapia pintorearekin izandako harremanen hainbat oroitzapenen zurrumbiloa ibili zitzaidan nire baitako joan-etorrietan hileta elizkizunean. Gabon egunez hil zen, bizi izan zen bezain apal esan zien agur bere obran behin eta berriro agertzen den bere munduari, Oria ibaiaren inguruko naturari, bere sustraiei, Oteizaren testuetatik teorizatutako erakarmen telurikoari, baina Oteizak ez bezala -seguru asko, hark baino hurbil barneagotik- sentitutako, usaindutako, eskuekin laztandutako naturari.

Gazte garaian probatutako pop jardun interesgarri batzuk salbu, natura pintatu zuen, gehienetan jaiotetxeko muinotik ikusten zuen Oria ibaiko meandroen inguruko paisaia. Tapiak esana de kuadro bat pintatzen zuenean leiho berri bat zabalitzen zuela inguruan zuen paisaiari begiratzeko. Leiho bakoitza, begirada berri bat artearen egoitzan. Tapia baino astebete geroago John Berger, Tapiaren adin ber-tsuko idazle eta pintorea, hil zen laurogeita hamar urterekin. Begiradari buruzko hausnarketa eder asko utzi dizkigu. Bestek beste, Bergerrek esan zigun artistarentzat pintatzea deskubritzea dela. Kuadro bateko “linea bat, kolore-zona bat ez da inportantea nik ikusi dudana erregistra-tzen duelako, gehiago ikustera eramango nauenarengatik baizik”. Tapiak bezala, Bergerrek errespetu handia zion landako munduari, eutsi egin nahi zion mundu horrek bere baitan duen jakiturari: naturari begiratzeko eta naturatik ikastea, “gure ondorengo belaunaldiak galtzen ari diren altxorrari eusteko modu bat da” idatzi zuen Bergerrek.

Bide beretik: Tapiaren helburua ere ez zen bere leihoetatik hain oparo ikusten zuen natura bere hartan erreproduzitzea, eguzkiaren argitan ikusitako naturaren argi ezkutu propioa bilatzea baizik. Argi aldakorraren sekretu betikoak iradokitzea. Sasiak eta masustondoak, arto-sailak eta kanaberadiak pintatzen zituen Tapiak, baina ez haietako adar, hosto eta abarren ehundura zoragarrietan gelditzeko. Tapiak ehuntzen dituen adar-sareak oso ederrak dira, bai, miresgarriak dira Tapiak txirikordatzeko dituen dantza kromatikoak, inpresioak, sugestiozko labirintoak, baina ikuslearen lehen kolpea haietan gelditu arren, laster ehundura horien atzean, harago eta sakonago dauden argi sekretuen bila hasten da ikuslearen begida. Baina, laguntzarik gabe, begirada ez baita horretarako gai: imajinarioaren laguntza behar du.

Hiletatik irten ginenean, eguzkia sartuta zegoen, baina Oria inguruko paisaia ez zegoen ez isilik, ez argirik gabe.



Altzoko Handia Orion

Traineru jaitzierak kirola eta parranda baino zerbait gehiago ekarri zuen Oriora otsailaren 11n. Egunaren amaierako herritar gehien mugikorretara zabaldu zen argazkia: *a ze tipoa! Zenbat neurtzen du?* izan zen bat baino gehiagoren -ia denen- erreakzioa.

Saad Kaiche du izena eta Argeliakoa da. Hona hemen, datuak: 30 urte, 2,30 metro eta 58,5eko oina. Saskibaloijokalaria izandakoa da Kaiche, Bartzelonan.

Orion zer egiten zuen galdetu ziotenean, Euskal Herrira pelikula bat grabatzera etorri zela erantzun zuen. Migel Joakin Elizegi *Altzoko erraldoiari* buruzko filma egiten ari omen da Jon Garaño eta Aitor Arregirekin.

Alboan duenak, Juanjo Curielek, 1,60 metro neurtzen du. Atera kontuak.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.



sinergia

FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELOQUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIA-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
bentsoak, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behea

ORIA hortz klinika

Orio Hortz Klinikak **ORFODONTIA** zerbitzu berri jani du martxoan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erorkuntzean sari dafestkeen arazakel.

Amantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

JAUNARTZEAK 2017

Hasi gea zitak ematen konpromisorik gabe etorri gure lanak ikustera eta presupuestoak eskatzera

943831048

610697668 **www.fotoramiro.com**

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 · ORIO 943 53 64 94 · 697 23 86 56
[caneta Amantzale kalea] libegarmendia@gmail.com

Jaunartzeak 2017

Ure bat, zentzuzko bat, sentimendu bat
BEHIN GERTATZEN DA BEZITZAN

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
tel: 943 83 38 65

lie apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 · behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URAITZ
Lurrinbeldia
jantzi-argazkiak

Enlatia 3 Tfn: 943 83 18 97



Argazkiko eraikinaren barruan zegoen errota, duela 50 urterarte eduki zuten martxan. KARKARA

Oroimenaren kutxa

Arrazubiko errota

Azko Santiyo egunean jakin genuen Arrazubi baserriko errotaren berri. Santiyoko frontoian harri jasotzailerle, aizkolari eta trontzalariei begira ginela, kontu-kontari aritu ginen bertako jendearekin, haien hitzei adidi. Baserria Santiyoko frontoitik 100 metrora dago, Aia aldera abiatuta; ezker aldean Alde baserria eta eskuin aldean Arrazubi.

Egun hartan jakin genuen duela 50 urte inguru arte aritu zela lanean errota hura, Santiyo erreka urak mugituta. Aranguren –Anguen– baserriaren atzealdean orain ITB fabrika dagoen inguruan bereizten zen ur-bide bat errekatik, Arrazubira iristen zena. Han, ur hura dena biltzeko putzu bat zeukaten. Putzu hartatik jaisten zen ura, indar handiz, errota martxan jarri nahi zuten bakoitzean.

Orioko herritarron egarría asetzeko, hainbat tokitatik iritsi zaigu ura historian zehar. Garai batean Aia aldetik ere bai, Santiyo erreka. Ura errota zeharkatuz iristen da, Arrazubitik barrena. Orduan Orioko udalak ordaindu egiten zion etxeko jaunari horregatik. Hori zela eta, orduko alkate Jesus Maria Aiestaran jaunak udalaren izenean errota erosteko proposamena egin zion Arrazubiko jabeari.

Hasieran, baserrian ez ziren horren aldeko, baina gerora gauzak aldatu egin ziren, modu bitxian gainera. Orduan seme bakarra bizi zen etxean, ezkongabea, gainerakoak joanak ziren etxetik ezkontuta. Seme soltero hari soldaduskarako garaia iritsi zitzaion, eta nonbaitetik jakin zuen bazuela modua soldadu joatek libratzeko: errota saltzea.

Errota baserriarena izanda, haren bidez etxean diru-sarrera bat zuten; eta mutila ez zen ezinbestekoa etxearentzat, diru aldetik. Baina errota salduta, haren diru-iturririk gabe, semearen lana guztiz beharrezko bihurtzen zen familiaren ekonomiarako, gurasoak zaintzeko. Horrek aukera ematen zion mutilari etxean gelditzeko, soldadu joan gabe.

Tratua eginda, Orioko udalak erosi egiten zion errota Arrazubiko jabeari, 300.000 pezetaren truke. 1966ko urrian izan zen. Semea ez zen kuarztelean instrukzio militarra jasotzera joan, eta geroztik errota hura Orioko udalarena da.

Urak handik pasatzen segitzen du, goitik behera, eta Orioraino iristen. Baina errota ez dabil, ez du lanik egiten, historia da, historia hutsa. Harriak han daude, gelditzen direnak. Haietako bat, errotarri borobil sendo bat, oriotar askoren bazkari eta afarietako mahaia izan da urtetan, haietako gehienek jakin gabe izan bada ere. Errotarria Orioko soziedade batean dago jarrita mahai moduan, Goiko Kalera igotzen diren eskaileretako *Gure etxea* gastronomia-elkarteko kanpoko aldean, sarreran. Jose Mari Lizaso alkate zela, eraman zuten hara, 1980ko hamarkadan.

Errotako tutuak berriz Agorregira eraman zituzten. Haietan lanean segitzen dute igandero, Agorregira hurbiltzen diren bisitariei Aia inguruko historia erakusten, garai batean hemengo ekonomiaren oinarri nagusietako bat izan zen jarduera ekonomikoaren azalpen nostalgikoa egiten.

Ana Rosa Azkue Larrañagak jarri gintuen Arrazubiko errotaren pistan. Ana Rosak ezagutu zuen errota hura martxan, bera txikia zela. Santiyoko eskolara joaten zen, Aia-Orioko beste hainbat neska-mutil bezala. Santiyok eskola eta errota biak zeuzkan garai hartan. Eskolara bezala, batzuetan errota aldera ere joaten ziren, irina bila.

Ana Rosak berak entzun zion orain dela gutxi norbaiti, Arrazubiko errota Oriokoa dela, gerra garai batean erosi ote zuen Orioko udalak zerbaitengatik eta eman zigun abisua. Hari esker egin ahal izan dugu gaiaren jarraipena; eta orain badakigu Trebiño txiki bat daukagula hor gertu, Orioren lurpuska bat Aia barruan, Aiaz inguratuta.

edariategia
ANTILLA
jatetxea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
 ARRADEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
 taberna-jatetxea-kafeategia

Plater konbinatuak,
 bokatak,
 hamburgerak,
 raziok,
 eguneko menua...

*ostiraletan
 pintxo
 potea!!*

eta etxera eramateko
 zerbitzua!

943 831 623

Osaketa ikusleekin, Erribera 1

**SU
 KIA**
 TABERNA-JATETXEA

Ona eta gero... hartu KOPA eta TOPAK

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 832 128
 AGARDIEN 36, 1. BARRIO

Portu
ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 10
 943 89 24 34
 20809 AIA-ORIO

*burdinko buruenko oinetan
 jantziak erabiltzeko erabaki onak*

ITZALA

*kartelak jokatzen
 auzoan*

tel. 943 83 12 59

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitardekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
 ostirategia
 jatetxea

Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

**ASADOR
 XIXARIO**

Emakume Gaietako Kalea, 2
 Tel. 943 83 02 19 - ORIO

kutixi
 kafeategia
 GOSARI GONDOAK

Arizaga 9, 20810 Oriu
 Tel. 943 13 13 17

BADATOR GALERNA!
 MARTXO-AK 3an irekiko
 ditugu gure ateak!

Galerne
 JATETXEA

943 89 04 10

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
 Herriko enparantza

lzozi naturalak - Opilak

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
 Tel. 943 894 024
 Fax. 943 130 144
 20809 AIA - ORIO





“Ilusioz jubilatuko naiz zale- tasunez lasaiago gozatzeko”

Nekane Larrañaga

Irakaslea

Andereño Nekane jubilatzeria doa. Horregatik, 6. mailako ikasleok elkarrizketa bat egitea pentsatu dugu. Eskerrik asko Nekane emandako guztiagatik!

Getariarra ala oriotarra, Nekane?

Seme-alabak eta senarra hemen jaiok dira, eta nik ere urte dezente daramatzat Orion. Baina bihotzez getariarra naiz.

Zenbat urte egin dituzu ikastolan?

Hau izango da 34. urtea. Ondo gogoratzen dut nire bigarren alabaz haurdun nengoela hasi nintzelako ikastolan.

Ingeleseko eskolatan, beti-beti ingelesez hitz egin behar izaten dugu. Bitxikeriaren bat kontatzeko horren inguruan?

Niretzat bitxikeriarik handiena izan da garai hartan ingeleseko eskolak lehen egunetik ingelesez eman ahal izatea. Izan ere, oso gutxik sinesten zuten hori posible zenik, baina ni erabat konbentziturik nengoela. Erraztasunak ere izan nituen ikastola aldetik, eta hori eskertzekoa da.

Herrian hainbat gauza sortu izan dituzu: ingeleseko elkarrizketak Antilla tabernan, Gabonetako Olentzero eta Mari

Domingiren etorreraren irudiak, Balearen diseinua, Kiroldegiko logoa... Nondik dator kizu zaletasun hori?

Sormenarako zaletasuna nire gurasoengandik dator kit: aita erdi asmatzailea zen, teknologian oso iaioa, eta ama ere oso sortzailea izan da. Bestalde, herri-gintzan aritzea barruan daramadan zer bait da.

Ikastolak eman dizkizun hiru gauza:

Orion integratzeko eta jende asko eza-gutzeko aukera, eta satisfazio profesional eta pertsonal handia.

Sinesten al duzu jubilatzeria zoazela?

Hemendik aurrera, zer?

Bai, noski, eta ilusioa dut orain egiten ditudan gauza berberak mantsuago egiteko: ur ertzean paseatu, baratzan aritu, margotu eta, nola ez, bidaiatu.

Agur esateko aukera duzu. Zer esango zenioke Orioko Herri Ikastolari?

Lehenik eta behin eskerririk asko. Eta prest nagoela orain ematen ari diren aldaketa handi horietan laguntzeko. Zorte on!



Niobe Ferreira

KiVa: agur Bullying-ari

Bullying-a gaur egungo gizartean oso presente dagoen gai bat da, eta baita Orion ere. Baina hitz hau entzutean norke ez du muturreko egoera bat irudikatzen? Hori da guri betidanik pentsarazi digutena, baina, nire iritziak, oso oker gaude; izan ere, edozeinek egiten duen keinu txar txikiak ere pertsona bat lur jota utz dezake, nahiz eta guk garrantzirik ez eman. Ziur naiz ia guztiok noizbait ikusi edo parte hartu dugula horrelako kasuren batean, baina beldurragatik edo axolagabetasun soilagatik beti esan ohi dugu ez garela konturatzeko eta ez dugu salatzen; beraz, nire ikuspuntu pertsonaltik, denok dugu erruaren zati minimoren bat behintzat, nahiz eta ez onartu.

Honengatik guztiagatik, oso interesgarria iruditzen zait Finlandiatik datorren KiVa proiektua ikastolak martxan jartzea, arazo honen larritasunaz kontura gaitetzen, denok batera aurre egiten saiatuz. Zerbait egin baino lehen, pentsatu dezagun bitan zer ondorio ekar ditzakeen; desagerrarazi dezagun behingo, bullying-a.

Ziur naiz ia guztiok noizbait ikusi edo parte hartu dugula horrelako kasuren batean.

Zertan da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra?



Plan Orokorra aurkezteko eta herritarren proposamenak jasotzeko bilera irekiak egin ziren 2015 hasieran. KARKARA

Orio 2030ean nolakoa izango den galderari erantzutea da Hiri Antolamenduko Plan Orokorren helburua.

2014an hasi ziren lehen pausoak ematen. Lehiaketa publiko bidez erabaki zuen Udalak, HAPOren lanketa teknikoak Santi Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak osatutako taldeari esleitzea. Herriko zenbait eremu hobetzeko eta herritarren etorkizuneko premiei erantzuteko zer egin zitekeen aztertu zuen talde horrek.

Bilera irekiak

2015 hasierarako bazuten aurrerapen dokumentua, eta Plan Orokorren inguruko aldizkaritxo batatu zuten etxe guztietara. Bost gune agertzen ziren eskuorrian eta gune bakoitzeko hiru proposamen. Hori eskuartean izanda, bilera irekiak egin zituzten herritarrekin, Plan Orokorren erronkak eta proposamen desberdinak haiei azaltzeko eta herritarren proposamenak jasotzeko.

Urte bereko irailean erakusketa publikoko epea amaitu eta herritarrek eginiko proposamenak jaso ziren. Azarotik aurrera gai horien inguruko hirigintza batzordeak egin ziren.

Hizkuntza, soinua eta generoa

2015eko abenduan eta 2016ko urtarri-lean hirigintza proiektuek herriko hizkuntza errealitatean izango eragina neurtzeko Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin zuen Udalak. HAPOk hizkuntza erabileran eragin zuzena izango duela ondorioztatu zuten. Biztanle kopurua hazi ahala datu soziolinguistikoetan euskararen indizeak behera egin du Orion.

2016ko urtarrila eta martxoa bitartean, Orioko herriko soinu mapa egin zen, proposamenen eragin akustikoa aztertzearekin batera. Azterketa horren arabera Orio herri lasaia da, herriaren %70ean zarata Kalitate Akustikoaren Helburua baino baxuagoa baita. Hala ere, badira zaratak eragin handiagoa duen guneak: Bikamiota eta Abaromendi autobideagatik eta sarrera-irteerako kaleak –Aita Lertxundi, Aritzaga– N634 errepideagatik.

2016ko abenduaz geroztik HAPOren genero inpaktua lantzen ari da Udala. Planeko proposamen desberdinek genero ikuspegitik dituzten gabezia edo indarguneak aztertzen ari dira. Horretarako, eguneroko jarduerak –gehiengintan emakumeen ardurapean daude-

nak– hirigintza kudeaketan kontuan ez hartzeak dakartzan ondorioak aztertu-ko dituzte.

Azken erabakia, politikoa

Plan Orokorren lehen onarpeneko dokumentuari udalbatzarrean eman behar zaio onarpena, hau da, erabakia politikoa izango da. 2016ko azaroan egin zen gaiaren gaineko azken hirigintza batzordea, eta oraindik ez da erabaki formalik hartu.

Arkitektoak dioenez, puntu edo zonalde batzuen inguruan badago adostasuna, baina badirudi beste hainbat puntutan talde politikoak ez direla inongo adostasunera iritsi. Oso zaila da, beraz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra noiz onartuko den aurreikustea.

Udalbatzarrean dokumentua onartzen denean berriro jendaurrean jarriko da eta herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Behin alegazioak aztertu eta Udalaz gaindiko erakunde publikoen txostenak ikusita, behin-behineko dokumentua onartuko du udalbatzarrak. Eusko Jaurlaritzak aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dio behin betiko onarpena Plan Orokorri.



EAJ

Orioko Plan Orokorra aurrera doa

Herriko Plan Orokorra herriaren ordenazioa arautuko duen hirigintza tresna da. Plangintza horretan herriko lurren izaera eta hori arautzen duen erregimena jasotzen da. Ondorioz, etorkizuneko Orio nolakoa izatea nahi dugun bertan jasotzen denez, berebiziko garrantzia du. Duen garrantzia ikusita, eta aurreko esperientzietatik ikasiak gatozenez, Plana ondo definitu, aztertu eta landu behar dela pentsatzen dugu Orioko EAJn. Horregatik, erakusketa publikoa amaitu ondoren, bertatik eratorri ziren proposamenak ondo aztertzeaz gain, plangintza berak ezinbestean atxikiturik eraman behar dituen txostenak egoki lantzea ezinbestekoa da. Zonalde bakoitzaren inguruko definizioan Udala osatzen dugun alderdien artean sortu diren zalantzak eta kezkek argitu ondoren, talde bakoitzak dituen proposamenen inguruan eztabaidatu eta erabakiak hartzeko garaia izango da. Erabakiak hartzeko ibilbide hau talde guztien artean egingo dugulakoan gaude.



Orain

Atzerapena atzerapenaren gainean

2015eko azarotik 2016ko azarora urtebete dago, hamabi hilabete, eta hori da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra -HAPO- Hirigintza Batzordeetan eztabaidatu gabe egon den tartea. Gutxi-tik oso gutxira aurreratu da. Frontoia, Dike, Kofradia, Mutiozabal, Aizperro... nola zeuden eta zein egoeratan daude gaur egun gai horiek? Gehienak zalantza berdinekin edo gehiagorekin. Zer dakite herritarrek gai horiei buruz? Ofizialki ezer ez, eta zure herria etorkizunean nola nahi duzun erabakitzeke ez badaukazu informazioarik zaila duzu parte hartzea eta erabakitzeta. Non jartzen dugu Frontoia? Dike eremua Arozenarekin edo gabe? Kofradiaren aukerak zeintzuk dira? Mutiozabaleko asmo zehaztuak badakizkigu? Aizperron industrialderako lurra utziko da nahiz eta Aldundiak beharrezkoa ez dela esan? Galdera asko, informazio gutxi. Badirudi herri-galdeketa egiteko Orain taldeak Udaletxean askotan eskatu duena irailean frontoiaren kokapenerako erabiliko dela.



EH Bildu

Plan Orokorra geldirik dago

Esaten dute krisi garaia aproposa dela gogoeta egiteko eta aukera berriei begiak irekitzeko. Hori izan zen 2014an Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrer berria egiteko lana abian jartzeko arrazoietako bat. Zergatik? Krisiak eragindako egoera berri honen lan tresna egokitu bat eskatzen duelako, gizartean eta ekonomian eragiteko. Nola? Herritarrekin egindako herri plan bat bultzatuz: aukera guztiak mahai gainean jarri eta herritarrekin gogoeta irekiak eginez. 2015eko lehen hilabeteetan lau saio ireki egin ziren modu horretan. Lanak ondo prestatuta utzi ziren zetorren agintaldi berriari begira. Zertan dago Plan Orokorra gaur egun? Udal agintaldi berriarekin EAJk erabat desitxuratu du prozesu guztia: 2015eko maiatzean herritarrek egindako iradokizunek ez dute oraindik inolako erantzunik jaso, 15 hilabete daramatzagu geldirik eta Plan Orokorra lanketa prozesu ilun batean sartu dute. Orioko herria atzean geratzerik nahi ez badugu, oinarri sendoak behar ditugu eta hau ez da bidea.



PSE-EE

Hilabete honetan iritzirik ez

Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi

Ingurumena

Kale-garbiketa zerbitzua hobetu du Udalak

Udalak lehiaketa publikoa egin zuen 2016an, kale-garbiketa zerbitzua adjudikatzeko. FCC enpresak irabazi zuen lehiaketa hori eta, hortaz, bera da orain zerbitzua ematen duena, Udalak jarritako irizpideen arabera. Zerbitzuak 310.000 euroko kostua du Udalarentzat urtero.

Udalak 2000. urtean egin zuen azkenean kale-garbiketa zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa eta, geroztik herria asko handitu eta garatu denez, egokitu beharra zegoen. Horregatik egin zuen iaz Udalak lehiaketa ostera: sortutako premia berriei hobeto erantzuteko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

2017ko urtarrilean hasi da FCC kale-garbiketa zerbitzua ematen baldintza berrietan. Zerbitzuak 5 langile izango ditu urtean zehar eta beste 2 gehiago arituko dira udako denboraldian. Horrez gain, birtarteko teknikoak ere handitu dira eta langileek bi eskobatzeko makina izango dituzte, egunero erabiltzeko. Gainera, garbiketa-lana nola egin ere zehaztuago dago orain: zein zonatan noiz, maiztasuna, erabili beharreko teknika eta bitartekoak...

Urtarrilaz geroztik eguneratze-lana egiten ari dira langileak, garbiketa bereziak eginez, gero mantentzea errazago izan dadin. Herritarrek berehala nabarmenduko dute zerbitzuaren hobekuntza eta



Udalak espero du horrek eragin positiboa izango duela oriotarron bizi-kalitatean.

Txakur-gorotzen arazoa

Nahiz eta Udalak ahalegin handia egin duen kale-garbiketa zerbitzua hobetzeko, herrian baditugu arazoak, Udalak bakarrik konpondu ezin dituenak; eta horietako bat da txakur-kakena.

Txakur-gorotzen gaia da, garbiketa dela eta, herritarren artean kexa gehien eta ezinegon gehien sortzen duena eta gai hori guztiz lotuta dago herritarren kontzientziaioarekin.

Udal ordenantzek garbi diote jabeek jasoko behar dituztela beren txakurren goro-

tzak eta hala jakinarazi zien Udalak aspaldi txakur-jabe guztiei: banan-banan eta gutun bidez. Askok dira, ordean, arauak betetzen ez dutenak eta, horren ondorioz, gure kaleak —eta, bereziki, lorategi eta belardiak— txakur-gorotzez beteta daude.

Zibismo kontu bat da: kaleak, lorategiak eta belardiak guztionak dira eta, askotan, herritarrok ezin ditugu erabili gutxi batzuen jarrera inzibikoagatik.

Udalak kale-garbiketa zerbitzua hobetzeko egindako ahalegina ez da nahikoa izango herritarrek ere kontzientzia hartzen ez badute eta guztion onerako ezarri diren arauak errespetatzen ez badi-tuzte.



Kirola

Berdin-Berdinak elkartearen sentsibilizazio saioa

Berdin-Berdinak elkartek eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak antolatuta, sentsibilizazio saioa egin zuten otsailaren 14an Orion. Ikasleek aukera izan zute urritasun egoera batzuk bertatik bertara ezagutzeko eta, horrekin batera, gaiari buruzko gogoeta egin zuten.

Miren Salsamendi elkarteko presidenteak, saioaren nondik norakoak izan ditu hipzide: *urritasun egoera bat bizi duenak, beste gaitasun batzuk garatuagoak izaten ditu.*



Gizartea

Jubilatuen eguna ospatuko dute martxoaren 29an

Urtero bezala, jubilatuen eta pentsionisten eguna ospatuko dute martxoaren 29an herriko zaharrek. 12:00etan hasiko da egitaraua, mezarekin. Egunsenti abesbatzak alaituko du elizkizuna. 14:00etan bazkaria egingo dute Aginagako Errasti sagardotegian, 14:00etan. Bertara joateko autobusak Goizeko kafeteriaren aurretik irtengo dira: 13:00etan bi autobus irtengo dira eta 14:00etan beste bi.

Txartelen salmenta martxoaren 20an eta 21ean egingo da, 16:00etatik 18:00etara. Bi egun horietatik kanpo ez da txartelik salduko eta erosteko bazkide txartela eguneratuta eduki behar da. Bazkarira joaten diren guztiek -bai sozioek eta bai gonbidatuek- jatetxeko arduradunari emango diote txartela bazkaritarako garaian. 18:00etan izango da bueltako autobusa.

Argazkian, otsailaren 12an Zaharren Babeslekuan jokatu zen mus txapelketako irabazleak: Txomin Iribar eta Jose Manuel Sarasua. Bigarren izan ziren Luis Azkue ta Genaro Gaztañazpi.

Gizartea

Janari-bilketaren balorazio ona egin du Gueraraorio elkarteak



Gizartea

Bizkar hezurra zaintzeak osasunean izan dezakeen eragina hizpide izango dute Aian Xabier Mendiara z fisioterapiari diplomatuak eta kiropraktikan lizentziatuak bizkar hezurreko zainketa on batek gaixotasunak hobetu edota saihestu ditzakeela azalduko du, Zure osasuna zaindu bizkar hezurra- ren bitartez hitzaldian.

Hitzaldia martxoaren 7an [asteartea] izango da 18:00etan, Aiako Kultur Etxean. Gaiarekin interesa duten herritarrak saiora gonbidatu dituzte.

Gizartea

Aita Lertxundi-Mutiozabal inguruko argiak berritu ditu Udalak

Udalak Aita Lertxundi kaleko Mutiozabal inguruko argiak aldatu ditu. Lehen 250w-ko lanparak zeuden jarrita eta Udalak horiek kendu eta 85w-ko LED lanparak instalatu ditu. Lanpara berriek potentzia erregulatzeko aukera dute, gainera, eta, hori dela eta, beren potentziari dagokiona baino %30 gutxiago kontsumitzen dute. Beraz, 2.250w-ko instalazio batetik 765w-ko batera pasatuko da Udala; beste modu batera esanda: urtean 8.200KW kontsumituzetik 2.200KW kontsumitzera pasatuko da.

Lanpara horiek aldatzeak 5.300€-ko kostua izan du. Udalak kalkulatu du 3-5 urteko epean amortizatu-ko dela gastu hori, energia-kontsumoaren jaitsiera- rekin. Horrez gain, kontuan izan behar da instalatu diren lanpara berriek lau aldiz gehiago irauten dutela, batez beste.

Udalaren asmoa da datozen 2-3 urteetan argi publikoaren kontsumoa erdira jaitea eta, hori lortzeko, herriko argi-instalazioaren azterketa sakona egiten ari da

Saharako herriarekiko elkartasunez Orion sortutako Gueraraorio elkarteak janari-bilketa egin zuen urtarrilean, sahararren kanpamenduetara eramateko.

Gueraraorio elkarteak adierazi duenez, 1.200 kilo janari eta material bildu dituzte oriotarren eskuzabaltasunari esker. Guztira, 100 kutxa material osatu dute eta dagoeneko eraman dituzte Donostiara, hango biltegian jasotzeko, Saharako kanpamenduetara eraman aurretik. Bildutako material guztia otsailaren bukaeran abiatuko da Euskal Herritik Saharara, karabana solidario batean.

Orion bildu den materialaren parterik handiena janaria da (le-kaleak, arroza, ogirina, atun-latak...); baina, horrez gain, elkarteak bildu ditu bestelakoak baita ere: 10 gurpildun aulki, erizaintzan erabiltzeko latexko eskularruak, eskolako materiala, arropa, botikak...

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

■ Pisua alokatu nahi dut, gehienez bi logelakoa. Tf: 943249613
 ■ Gela edo etxebizitza merkea alokatu nahi dut. Tf: 674811827

Lan eskaintza

■ Neska euskalduna nahi dugu tabernan lana egiteko. Tf: 653709264

Lan eskaera

■ Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293
 ■ Ordukako lan bila dabilen mutila naiz. Garbiketana eta helduen zaintzan. Tf: 603644555

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketana egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579

■ Gizonezkoa lan bila. Baserrian eta ganaduarekin esperientzia. Landako lanak egiteko gai. Tf: 674814755 - Jorge Ponce-.

Salgai

■ Baserrira salgai edo alokagai Asteasun. Egoera onean, herrian bertan. Tf: 615790965
 ■ Babes Ofizialeko Etxebizitza bat nahi? Andatza auzoan, 2 logela, trasteroa eta garajea. 115000 euro. Tf: 649017627

■ Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo, 20 €, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634 424 887.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	6:06 eta 18:28	12:16 eta	
02	6:47 eta 19:09	0:32 eta 12:58	
03	7:31 eta 19:56	1:16 eta 13:44	
04	8:22 eta 20:50	2:05 eta 14:35	
05	9:24 eta 21:58	3:03 eta 15:37	
06	10:42 eta 23:23	4:14 eta 16:52	
07	12:13 eta	5:38 eta 18:15	
08	0:49 eta 13:32	7:01 eta 19:29	
09	1:59 eta 14:34	8:08 eta 20:29	
10	2:54 eta 15:23	9:02 eta 21:17	
11	3:40 eta 16:05	9:46 eta 21:59	
12	4:20 eta 16:42	10:25 eta 22:38	
13	4:57 eta 17:17	11:01 eta 23:13	
14	5:32 eta 17:49	11:35 eta 23:48	
15	6:04 eta 18:21	12:09 eta	
16	6:37 eta 18:53	0:23 eta 12:42	
17	7:10 eta 19:26	0:58 eta 13:17	
18	7:45 eta 20:04	1:35 eta 13:54	
19	8:26 eta 20:49	2:17 eta 14:38	
20	9:19 eta 21:51	3:08 eta 15:33	
21	10:34 eta 23:14	4:15 eta 16:46	
22	12:05 eta	5:35 eta 18:06	
23	0:38 eta 13:18	6:50 eta 19:14	
24	1:40 eta 14:11	7:48 eta 20:06	
25	2:28 eta 14:53	8:34 eta 20:50	
26	4:09 eta 16:32	10:16 eta 22:31	
27	4:48 eta 17:10	1:55 eta 23:10	
28	5:27 eta 17:48	11:34 eta 23:50	
29	6:06 eta 18:27	12:14 eta	
30	6:47 eta 19:08	0:31 eta 12:55	
31	7:30 eta 19:51	1:14 eta 13:38	

ZAINTZAKO BOTIKAK

- MARTXOA
- 1ean, Iriarte
 - 2an, Lasa
 - 3an, Larrañaga
 - 4 eta 5ean, Mutiozabal
 - 6an, Zulaika
 - 7an, Etxeberria
 - 8an, Esparza
 - 9an, Larrañaga
 - 10ean, Mutiozabal
 - 11n eta 12an, Iriarte
 - 13tik 17ra, Lasa
 - 18 eta 19an, G. Artiñano
 - 20an, Zulaika
 - 21ean, Larrañaga
 - 22an, Mutiozabal
 - 23an, Etxeberria
 - 24an, G. Artiñano
 - 25ean eta 26an, Izpizua
 - 28an, Mutiozabal
 - 29an, Lasa
 - 30ean, G. Artiñano
 - 31n, Izpizua

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

Atzeko azala:
 Oriaren XXIII. Jaitsiera, otsailak 11.
 Argazkilaria: Joxeju Olasagasti



Orio

Inauteriak

- Otsailaren 25ean Ihauteriak. 17:00etan desfilea Bikamiotatik plazara.

Korrika kulturala

- Martxoaren 1ean, Raguko ipuin kontalaria, 18:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 19an, Kuestazio eguna.
- Martxoaren 23an, Iñaki Perurenaren hitzaldia, 19:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 31n, Egunsentiaren kantak, Pier Paul Berzaitzen kontzertua, 22:30ean Kultur Etxean.
- Apirilaren 1ean, bertso saioa eta bazkaria Balea elkartearen. Arratsaldean Euskarakea Kultur Etxean, txurmusikik antolatuta.

Bilerak

- Martxoaren 3an, Orio A Eren batzar nagusia, 18:30ean Kultur Etxean.
- Martxoaren 6an, Euskal Jaia antola-

tzeko bilera, 19:00ean.

Emakumeen nazioarteko eguna

- Martxoaren 8an, Giza Katea Kultur Etxetik, 11:00etan.
- Martxoaren 8an, 19:00etan kontzentrazioa plazan. Ondoren, emakumeen afaria.

Zinea

- Martxoaren 9an, Biziminez dokumentala, 19:30ean Kultur Etxean.

Mendi lasterketa

- Martxoaren 12an, Orioko Mendi Lasterketa, 9:30ean. Izen-ematea: kirolprobak.com.

Kontzertua

- Martxoaren 17an, Lorratzak taldearen kontzertua, 22:30ean Kultur Etxean.

Jubilatuaren eguna

- Martxoaren 29an, jubilatuen eta pentsionisten eguna. 12:00etan meza Orioko

elizan, 14:00etan bazkaria Errasti sagardotegian.

Traste zaharrak

- Martxoaren 15ean eta 29an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

Aia

Mendi lasterketa

- Martxoaren 5ean, Aiako Mendi Lasterketa, 10:30ean. Izen-ematea: kirolprobak.com

Hitzaldiak

- Martxoaren 7an, kiropaktikari buruzko hitzaldia Xabier Mendiaren eskutik, 18:00etan Kultur Etxean.

Podologoak

- Martxoaren 25ean podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Lurralde batek industria bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Hori ekonomia da.

ORAIN INDUSTRI 4.0
Laugarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA



